

arteka



**PCE: TRAIZIO
BATEN HISTORIA**

— **Z** enbaki honetan
komunismoaren
“jatorrizko traizioa”
izango dugu hizpide, zeina Espainiako
Estatuan PCEk ordezkutzen baitu.
Horretarako, PCEren errendizio ideologikoa
–nazioarteko komunismoaren errendizio
ideologikoaren testuinguruan–, alderdi
hori Espainiako Estatuan eta ordenaren
alderdian integratu izana eta mugimendu
proletarioaren desartikulazioan izan
zuen erantzukizuna landuko ditugu.

6	EDITORIALA <i>Arteka</i>	Iraultza posible da
10	ELKARRIZKETA Eduardo Abad	PCE frankismo berantiarrean eta Trantsizioan: “carrillismoa” eta “eurokomunismoa”
28	KOLABORAZIOA Lara Montilla Navarro eta Aritz Rodríguez Galán	Mendekotasun politikoaren bidea: Espainiako Alderdi Komunistak gaur egun duen estrategiari buruzko oharrak
40	ERREPORTAJEA <i>Arteka</i>	PCEren kontuak eta finantzaketa
50	KOLABORAZIOA <i>Arteka</i>	PCE XXI. mendean: “haizeak nora, zapiak hara” estrategia
64	IRITZIA Dani Askuntze	Espainiako Alderdi Komunista, hasi eta... buka?

Iraultza posible da

Editoriala

Hona hemen materialismo historikoaren oinarri kanonizatu bihurtu den testu-zati bat, Marxek idatzia *Ekarpena Ekonomia Politikoaren Kritikari* lanaren hitzaurrean:

“Ez dago formazio sozialik bere barruan sartzen diren ekoizpen-indar guztiak garatu baino lehen desagertzen denik, eta sekula ez da ekoizpen-indar berri eta maila altuagokorik sortzen haiek existitze-ko baldintza materialak garatuak diren arte aurreko gizartearen barruan. Hori dela eta, lor ditzakeen helburuak bakarrik proposatzen dizkio gizateriak bere buruari; izan ere, hobeto begiratz gero, beti ikusiko du helburu horiek bakar-bakarrik sortzen direla badaudenean haiek gauzatzeko baldintza materialak, edo, gutxienez, baldintza horiek sortzen hasiak direnean.”

Testu-zati horretan, XX. mendeko mugimendu iraultzaileari uko egin zioten haiek, etapismoaren formaren pean, justifikazio bat ikusi zuten erreformismoaren eta errebisionismoaren bidea aukertzeko. Iraultzari traizioa egin zioten haien arabera, iraultza ez zen posible, ez baitzen existitzen hura gauzatzeko baldintzarik: baldintzak heldu arte itxaron behar zen, iraultzaren aurreko etapa bat pasatu, non baldintzek, beren kabuz bidea eginez, ateak irekiko zizkioten etorkizuneko gizarte bati.

Iraultzari traizioa egin zioten haien arabera, iraultza ez zen posible, ez baitzen existitzen hura gauzatzeko baldintzarik: baldintzak heldu arte itxaron behar zen, iraultzaren aurreko etapa bat pasatu, non baldintzek, beren kabuz bidea eginez, ateak irekiko zizkioten etorkizuneko gizarte bati

Historiak mugimendu iraultzaileari eta marxismoari arrazoia eman die XX. mende osoa eta gaur egunera bitartekoa baldintzatu zuen iraultza bat piztu zenean. Gertakari hark kontra egiten zion iraultza sobietarra ukatzeko marxismoan bertan oinarritzen zirela zioten horien iragarpen teoriko orori –adibidez, mentxebikeak iraultzaren kontra zeuden, haien ustez Errusiak lehenbizi garapen-fase kapitalista bat eta gizarte burgesaren ajeak pasatu behar baitzituen–.

Gaur, iraultza antolatzeko beharra ukatzen duten horiek horrelakoxe terminoetan mintzo dira. Are, etorkizunerako iraultza prestatzen ari direla diote, baina iraultza ezinezko bilakatzen duten estrategia batzuk ere bultzatzen dituzte, zeinek baldintza objektiboen garapen librea sustatzen baitute –eta horiek proletariotzaren muturreko miseria sortzen dute–, bai eta Kapitalaren estatu-forman garatzea ere.

Alabaina, Marxek berak, Parisko Komunaren esperientziari buruzko hitzok esan zituenean, erabat itxi zuen materialismo historikoaren interpretazio hutsal eta indargabeetarako aukera:

“Esentzian, [Parisko Komuna] langile klaseko gobernu bat zen, klase jabedunaren kontra klase ekoizleak egindako borrokaren fruitua, lanaren emantzipazio ekonomikoa gauatzeko modua ematen zuen forma politikoa, azkenenik desestalia.

Azken baldintza hori gabe, Komunaren erregimena ezina eta inposizioa izango zen. Ekoizleak menderatzaile politikoak izatea bateraezina da haien esklabotza soziala betikotzearekin. Horrenbestez, klaseen existentziaren azpian dauden zimendu ekonomikoak erauzteko palanka izan behar zuen Komunak, eta, beraz, baita klase menderakuntza deuseztatzekoa ere.”

Antzera egin zuen Feuerbach-i buruzko hamai-kagarren tesi ezagunean ere: *“filosofoek mundua zenbait modutan aztertu dute, besterik ez; baina mundua eraldatzea da kontua.”*

Halaber, historiak mugimendu iraultzaileari eta marxismoari arrazoia eman die XX. mende osoa eta gaur egunera bitartekoa baldintzatu zuen iraultza bat piztu zenean. Gertakari hark kontra egiten zion iraultza sobietarra ukatzeko marxismoan bertan oinarritzen zirela zioten horien iragarpen teoriko orori –adibidez, mentxebikeak iraultzaren kontra zeuden, haien ustez Errusiak lehenbizi garapen-fase kapitalista bat eta gizarte burgesaren ajeak pasatu behar baitzituen–.

**Subjektu iraultzailearen
XX. mendeko porrota
guztiz osatu zen
nazioarteko iraultzaren
ateak itxi eta indarrean
zegoen estatuen
ordena onartu zenean.
Onartu zenean ez
zegoela sozialismorako
beharrezko
baldintzarik, eta, haiek
sortzeko, beharrezkoa
zela aurretiazko etapa
bat, demokrazian
sakontzekoa**

Aipatutako kasu guztietan, iraultzaren bulkada determinatzen duen kondizio moduan ageri da subjektua, eta ez historiaren emaitza bizigabe moduan, edo bizitza propioa duten gertakari historikoen hondakin kontingente moduan, beste era batera esateko. Izan ere, marxismoa eta materialismo historikoa ez dira interpretazio-filosofia bat, ez eta subjekturik gabeko historia bat ere. Kontrara, subjektuak historian hartu duen posizioan oinarritzen dira biak; hau da, subjektuak gertakarien aurrean eta indarrean den errealitatearen aurrean kokatzeko duen forma espezifikoa dira.

Gauzak horrela, *Ekarpena Ekonomia Politikoa*ren Kritikari lanaren hitzaurrea beren etsitzea eta eraginkortasun eza zuritzeko erabiltzen duten horien aurrean –izan ere, horrekin justifikatzen dute iraultzak atea joko duela gauzatzeko prest dagoenean–, esan dezakegu, XX. mendean baldintzak egon bazeudelako piztu zela iraultza, eta gaur ere mugimendu iraultzailea berraktibatu eta komunismoaren helburua lortu nahi dugula, hain justu, badaudelako hura *“gauzatzeko baldintza materialak, edo, gutxienez, hasiak direlako sortzen”*.

Era berean, Parisko Komuna ez zen historia-ri errenditutako subjektu bat, baizik eta *“klaseen existentziaren azpian dauden zimendu ekonomikoak erauzteko palanka[...], eta, beraz, baita klase menderakuntza deuseztatzekoa ere”*; hau da, aurre egin behar zitzairen klaseak eratzeko aukera eman zuten baldintza objektiboei. Bestela esanda, historiak jarri zuen subjektua zen Parisko Komuna, bere historia propioa egin behar zuena, eta, bere oinarriak gauzatzeko, errealitatea eraldatu behar zuena; izan ere, oinarri horiek potentzia politikoa moduan bakarrik existitzen ziren, burgesiaren eta garatzen ari zen ordenaren kontrako klase-borrokan.

Laburbilduz, errealitatearen aurrean jarrera hartzeak, zentzu marxista batean, hari aurre egitea, hura eraldatzea esan nahi du. Subjektu iraultzailearen XX. mendeko porrota guztiz osatu zen nazioar-

teko iraultzaren ateak itxi eta indarrean zegoen estatuen ordena onartu zenean. Onartu zenean ez zegoela sozialismorako beharrezko baldintzarik, eta, haiek sortzeko, beharrezkoa zela aurretiazko etapa bat, demokrazian sakontzekoa.

Espainiako Estatuan, etapa hori, nahiz eta XX. mende guztian zehar garatu zen, trantsizio demokratikoan egin zen ofizial –PCEk hasieratik adostua–, eta, azkenik, indar guztiak Estatuan integratu zirenean itxi zen. Euskal Herrian, ezker abertzalearen inguruan antolatutako konfrontazio mugimendua desartikulatzea ekarri zuen horrek.

Zenbaki honetan komunismoaren “jatorrizko traizioa” izango dugu hizpide, zeina Espainiako Estatuan PCEk ordezkatzeko baitu. Horretarako, PCE-ren errendizio ideologikoa –nazioarteko komunismoaren errendizio ideologikoaren testuinguruan–, alderdi hori Espainiako Estatuan eta ordenaren alderdian integratu izana eta mugimendu proletarioaren desartikulazioan izan zuen erantzukizuna landuko ditugu.

Izan ere, maiz aurkeztu izan zaigunaren kontrara, errebisionismoa eta erreformismoa ez dira baldintza errealetara egokitzeko mugimenduak; ez dira errealismo- eta pragmatismo-ariketa bat. Oso kontrara, mugimendu kolaborazionistak dira, eta haien helburua proletariotzak burgesiaren eta Estatuaren uztarripean jarraitu dezan baldintza errealak sortzea da. Baldintza objektibo batzuetara egokitzen direla diote, baina, azken finean, haiek dira baldintza horien erantzuleak; izan ere, haien mugimendu amore-emailea, haien errendizio-ekintza da mugimendu iraultzailearentzako kontentzio-dikearen forman irudikatzen diren baldintza horien sorrera-unea.

Haien aurrean, guk diogu posible dela iraultza, emanak daudela haren baldintzak, eta, hala ez baltiz, ez ginatekeela hura planteatzeko gai izango proletario guztientzako hizkuntza ulergarri eta komun batean. ●



**PCE FRANKISMO
BERANTIAURREAN
ETA TRANSIZIOAN:
“CARRILLISMOA” ETA
“EUROKOMUNISMOA”**

Eduardo Abad García historialaria da. Doktorea da Oviedoko Unibertsitatearen eskutik *La disidencia ortodoxa en el comunismo español* (1968-1989) tesiarekin, eta hainbat artikulu eta liburu argitaratu ditu, hala nola *Desencanto y disidencia, estudios sobre la crisis del comunismo en España* (2023) eta *A contracorriente, las disidencias ortodoxas en el comunismo español*.

Elkarrizketa hau esku artean duzun *Artekaren* oinarri eta abiapuntu da; bertan, PCEk trantsizioan eta ondorengo hamarkadetan izan zuen papera eta garapen politikoa aztertzen dira.

Testuinguruan jartzeko: zer izan zen PCEren Adiskidetze Nazionalerako Politika frankismoan? Zer izan zen carrillismoa?

Adiskidetze Nazionalerako Politika (aurrerantzean, ANP) PCEren Komite Zentralak egindako proposamen taktikoa izan zen. 1956ko ekainean egin zuen, Espainiako Gerra (1936-1952) hasi zuen altxamendu faxistaren hogeigarren urteurrena hurbil zegoela. Aitzitik, esan behar da, “Espainiako Gerra Zibila” izenez ezagutzen den arren, Alemania naziak eta Italia Faxistak zuzenean parte hartu zutela hartan. Bada, PCEren proposamenaren abiapuntua hiru hamarkada lehenago hasitako erresistentzia armatuaren zikloa erabat ixtea zen. Erresistentzia armatuaren lehenengo fasea Errepublikako Herri Armadaren ohiko gerra izan zen, 1936tik 1939ra iraun zuena, eta, bigarrena, 1939-1952 urteen artekoa, non gerrilla-taldeek jazarpen izugarriari egin zioten aurre, heroismoz, kopuruan eta armamentuan haiek baino askoz ahaltsuagoak ziren tropei. PCEk 1956an egindako proposamenaren arrazoi nagusia hurrengo zen: erregimenaren hierarkia isolatzen ari zelako ustea, eta tradizionalki gerraren irabazlearen bandoan zeuden sektoreen artean nahigabe handia agertzen ari omen zelakoa. Praktikan, hala ere, Adiskidetze Nazionalerako Politika martxan jartzeak diktaduraren garairik basatienean erresistentzia antifrankista gorpuztu zuten pertsonen memoria kolektiboa lurperatzen zuen. Zertarako, eta ustezko aliantzak egiten saiatzeko sektore argiki antikomunistekin, beren burua Alderdiarekin lotzea kosta ahala kosta saihesten zuten horiekin. Edonola ere, aldaketa horiek nazioarteko mugimendu komunistaren

barruko korronteei jarraitzen zieten. Izan ere, hiru urte lehenago Stalin hil izanak eta 1956ko otsailean egin zen Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren XX. kongresuak inflexio puntu bat markatu zuten alderdi komunisten norabideari dagokionez. Koexistentzia Baketsuaren politikak atsedena ekarri nahi zuen sozialismo errearentzat, eta, horretarako, sozialismoaren eta kapitalismoaren arteko elkarbizitza baketsua bermatu behar zuen bakoitzaren eragin-eremuetan. Praktikan, baina, lurperatu egin zuen etorkizuneko mundu mailako iraultza proletariorik gertatzeko aukera.

Praktikan, hala ere, Adiskidetze Nazionalerako Politika martxan jartzeak diktaduraren garairik basatienean erresistentzia antifrankista gorpuztu zuten pertsonen memoria kolektiboa lurperatzen zuen. Zertarako, eta ustezko aliantzak egiten saiatzeko sektore argiki antikomunistekin, beren burua Alderdiarekin lotzea kosta ahala kosta saihesten zuten horiekin

Adiskidetze Nazionalerako Politikara itzuliz, joera-aldaketa nabarmen horrek alderdiaren egiturazko helburua aldatu zuen: "demokraziaren" aldeko borroka apustu estrategiko nagusi bilakatu, eta sozialismoa erretorika erromantiko huts batera baztertu zen. Horretarako, PCEren zuzendaritzak neurri lexiko batzuk hartu behar izan zituen, baita azpimarratu ere joera berri horrek ez zuela inolaz ere "klaseen adiskidetzea" ekarriko. Hala ere, militantziak ezusteko handia hartu zuen, eta, gaiari buruzko azterketa monografikorik gabe ere badakigu politika hori aurrera eramateko dezenteko erresistentzia egon zela. Nolanahi ere, alderdiko beti-bateko diziplinak zalantzak eta balizko disidentziak leundu zituen. Ia hamarkada bat geroago, 1964an, komunismo ofizialarekin bat ez zetozen sektore txiki batzuk, zenbait Txinako sozialismoaren ereduaren eraginpean, erakunde berriak sortzeko pausoak ematen hasi ziren, hala nola *Acción Comunista*, *Partido Comunista de España* (marxista-leninista) eta *Unión do Pobo Galego*. Hala ere, ANP gogor kritikatu zuten urte horietan jaiotako erakunde komunista guztiek, frankismo berantiarrean eta trantsizioan ezker iraultzailearen siglen mapa osatu zutenek. Finean, gertaera horrek PCEren amaieraren hasiera markatu zuen, haren gainbeheraren edo, gutxienez, hura indar erreformista huts bilakatzearen jatorria izan baitzen.

Nolanahi ere, adierazpen horrek epe luzera izan duen inpaktua da interesgarriena; alegia, berrogeita hamarreko hamarkadako berehalako koiunturatik askoz haratagoko irismena eduki izana. Kontuan izan behar da dokumentu horren oinarriek erakundearen ondorengo hamarkadetako politika eta nortasuna markatu zituztela. Espainiako Estatuak izan dituen aldaketa eta eraldaketa sozioekonomiko handiak gorabehera, haren esentziak aldaezin jarraitu du eta, itzaltzen joan beharrean, hamarkada batzuk geroago izan zuen goraldirik handiena, Trantsizio garaian. Franco hil ondoren irekitako testuinguru horretan, PCEk parlamentarismo liberalaren eredu burgesarekiko izan duen leialtasun luzearen berme gisara aurkeztua izan zen ANP. Hau da, alderdiak *statu quo*a mehatxatzen ez zuelako froga, hartan eztabaidatik kanpo geratzen baitzen iraultza-bidea.

Arestian aipatutako guztia, sakonki eta zuzenean, "carrillismoaren" fenomenoarekin lotzen da; alegia, proiektu komunistaren mutazioaren formula espezifikoki espainiarrarekin. ANParen irismen orokorra ez zatekeen posible izango Santiago Carrillo Solaresen zigilu pertsonalik gabe –PCEko idazkari nagusia 1960 eta 1982 artean–. Carrillo PSOeko gazte antolakundetik etorria zen, eta ziztu bizian egin zuen gora PCEren erbesteko egituretan, espainiar komunismoaren autoritate gorena bihurtu arte. Hasieran irekitasun ideologikorako joera berezirik erakutsi ez zuen arren, laster aprobetxatu zuen Mendebaldeko alderdi komunistekiko autonomiaren abagune berria alderdiaren erreferente tradizionalak eta nortasun ortodoxoa desgiteko. Ildo horretan, buruzagi horrek militantzia komunistaren gehiengoari utzitako ondarearen elementu nagusiak, hain zuzen ere, bere jarduteko modu lotsagarriki taktizista, maila ideologiko baxua eta bere politikak babesten ez zituztenei jazartzeko joera izan ziren. Horrela, gaur egun ere, *damnatio memoriae* prozesu argia izan du Carrilloren figurak (memoriaren kondenzazioa). Haren presentzia ezabatu egin da alderdiaren dokumentaletatik eta memoria-egintzetatik, akaso ez hainbeste haren politikek gaitzespena sortzen dutelako berez, baizik eta haren figurak alderdiaren autosuntsipen-prozesuarekin lotura estua duelako. Hala ere, gertaera anomalo horrek benetan erakusten diguna zera da: lehengo idazkari nagusiaren figura pagaburu gisa hartu dela alderdiari bera erantzukizun oro kentzeko, nahiz eta erantzukizun hori askoz gehiago den kolektiboa indibiduala baino. Areago, nekez absolutu daitezke erantzukizun horretatik bestelako agintariak, esaterako, Pasionaria bera, hain figura gurtua.

Kontuan izan behar da Adiskidetze Nazionalerako Politikaren oinarriek erakundearen ondorengo hamarkadetako politika eta nortasuna markatu zituztela. Espainiako Estatuak izan dituen aldaketa eta eraldaketa sozioekonomiko handiak gorabehera, haren esentziak aldaezin jarraitu du eta, itzaltzen joan beharrean, hamarkada batzuk geroago izan zuen goraldirik handiena, Trantsizio garaian. PCEk parlamentarismo liberalaren eredu burgesarekiko izan duen leialtasun luzearen berme gisara aurkeztua izan zen ANP

Zein zen Europako gainerako alderdi komunisten egoera garai hartan? Italiako Alderdi Komunista (PCI) bezala, PCE ere eurokomunista izan zen?

Oro har, esan daiteke PCEren kasua ez zela inolako salbuespena izan bilakaera politiko eta ideologikoari dagokionez. Beharbada ezohikoena da mutazio hori diktadura frankistaren testuinguruan gertatu zela, halako klase-diktadura sutsu eta nabarian. Iberiar penintsulako kasutik haratago, Mendebaldeko Europako alderdi komunistak indartuta atera ziren II. Mundu Gerrako faxismo naziaren porrotetik. Baina ikuspegi eskematiko batzuek Mendebaldearen etorkizuna baldintzatu zuten, Jaltako eta Potsdameko akordioek, adibidez. Akordio horietan, eragin-eremuak bloke kapitalistaren eta sozialistaren artean banatu ziren; hala ere, klaseen arteko borroka ez zen eten gerraren ondoren, ezta Europako eremu honetan ere. Hasiera batean, herri-klaseek aurrerapen batzuk izan zituzten, adibidez, Frantzia edo Italian, non gerra bukatu eta berehala konkista sozial garrantzitsuak lortu ziren koalizio-gobernuetan parte hartuz. Hala ere, herrialde horietako ministro komunistak kanporatuak izan ziren 1947an, eta ziklo berri bat ireki zen: planetaren alde honetan antikomunismoa indartu zen, eta proiektu iraultzaileentzat askoz ere latzagoa bihurtu zen testuingurua. Inperialismo estatubatuarrak, Europako burgesien gobernuekin lankidetzan, Red Gladio eta tankerako proiektuak garatu zituen; eta horien bitartez langileen erakundeen aurkako eraso ugari gauzatu zituzten, haien irismena eta autonomia argitzeko eta kuantifikatzeko dagoen arren. Beste faktore garrantzitsu bat da ez zutela zalantzarik egin, beharrezkoa izan zenean, alderdien maila gorenei ere erasotzeko; 1950ean Julien Lahaut Belgikako Alderdi Komunistako presidentea erail izana da horren erakusgarri.

Blokeo-testuinguru konplexu horretan, alderdi komunisten zuzendaritzek helburuak eta diskurtsoa beharrezkoa erabaki zuten. Hala ere, aldaketa ez zen izan ez berritzailea, ezta bat-batekoa ere; hain zuzen, narratiba hori "frontepopulismoaren" garaiko taktikan sortu zen. Garai horretan, alderdiek gero eta ikuspegi interklasistagoa hartu zuten: etengabe erabiltzen zituzten "demokrazia" edo "askatasuna" bezalako kontzeptu abstraktuak, eta faxismoaren aurkako

Gertaera anomalo horrek benetan erakusten diguna zera da: lehengo idazkari nagusiaren figura pagaburu gisa hartu dela alderdiari bera erantzukizun oro kentzeko, nahiz eta erantzukizun hori askoz gehiago den kolektiboa indibiduala baino. Areago, nekez absolbitu daitezke erantzukizun horretatik bestelako agintariak, esaterako, Pasionaria bera, hain figura gurtua

koiunturazko aliantza zabalak sortzen saiatu ziren. Agian deigarriena zera da: antifaxismoa atzean geratu zenean sakondu zutela dinamika horretan. Gainera, joera-aldaketa hori Ekialdeko alderdi komunistekin batera egin zuten, bereziki SESBekoarekin. Kontua da Mendebaldeko beste alderdi ugari proposatu zituztela ANPren antzeko proiektuak. Proiektu horietan, programaren garapen "etapista" baten bidez "sozialismorako bide nazional propioa" aurkitu nahi zuten; ezagunena Italiako kasua izan daitekeen arren, adibidez, 1952an Britainia Handiko Alderdi Komunistak bere *British Road to Socialism* programa abiarazi zuen, *For a Soviet Britain* (1935) izeneko aurreko programa ordeztzeko. Zentzu horretan, salbuespen bakarra Portugalgo Alderdi Komunista izan zen; izan ere, Alvaro Cunhalek 1960an Penicheko espetxetik ihes ikusgarria egin ondoren, atzera egitea eta altxamendu armatuaren beharra defendatzen jarraitzea erabaki zuen. Orduan, Batzorde Zentralak erakundearen noraeza aztertu zuen (PCEren eraginez gertatua, hain zuzen ere), eta *desvio de direita* harekin amaitzea erabaki zuen ("eskuinerazko joera").

Aitzitik, mutazio ideologiko hori gauzatu ahal izateko, Mendebaldeko alderdi komunistek erreferente sobietarraz libratu behar zuten, beren jaiotzaren lekuko izan zen hartaz, hain zuzen. Egiari zor, Ekialdeko Europako sozialismo-ereduari buruz egiten dugun balorazioa gorabehera, haien sistema sozioekonomikoa urrun zegoen herrialde kapitalistenetatik, eta modu iraunkor eta nabarmenean demostratu zuen nola klase nagusiak gabetuak izan zitezkeen ekonomian eta gizarte kapitalistan betetzen zuten rolaz. "Sozialismo errealeko" herrialdeekiko haustura hori 1968ko abuztuan hasi zen, tropa sobietarrek eta Varsoviako Ituneko beste 3 herrialdek ezustean Txekoslovakiako Errepublika Sozialista inbaditu zutenean. Mendebaldeko alderdiek

beren kritiken tonua altxatzeko erabili zuten gertaera hori, eta kasu batzuetan nabarmen urrundu ziren haren ondorioz.

70eko hamarkadaren erdialdean epifenomeno bat sortu zen alderdi komunisten pixkanakako aldaketa horren barruan, eta garai hartan ospe handia eman zitzaion, komunikabideen jarraipen zabalari esker. Herritarrek "eurokomunismo" gisa ezagutu zutenaz ari naiz: prozesu luze baten enegarren adierazpena zen, nahiz eta argi eta garbi erradikalizatuta egon, eta, haren bidez, alderdi komunistek sakoneko proiektua aldatu zuten: iraultza sozialistaren ereduak presente jarraitzen zuen, baina estatu burgesaren esparruan erreforma sozialak egiteko estrategia gradualista baten eta haren kudeaketa-modu parlamentarioaren barruan. Eta hori, bide



Dolores Ibarruri eta Santiago Carrillo hizketan, PCEn IX. kongresuan, 1978ko apirilean

Oro har, esan daiteke PCEn kasua ez zela inolako salbuespena izan bilakaera politiko eta ideologikoari dagokionez. Beharbada ezohikoena da mutazio hori diktadura frankistaren testuinguruan gertatu zela, halako klase-diktadura sutsu eta nabarian

batez, alderdi sozialistek eta sozialdemokratek aurreko hamarkadetan aldarrikatutako gauza bera zen. Menderatze-esparru burges hori onartu zuten, erreformagarria omen zelako, eta, ez hori bakarrik, baita proletariotzaarentzat hobekuntzak lortzeko modu bakarra ere. Fenomeno hori ez zen Mendebaldeko Europako herrialdeetan bakarrik gertatu: beste latitude batzuetan ere izan zuen eragina, tartean Mexikon, Japonian, Australian, Costa Rican, etab.. Zentzu horretan, Carrillo buru zuen alderdia sutsuki eurokomunista izan zen edukian eta forman. Beharbada PCI bera baino gehiago, bere burua benetan "berritu" zuela eta sobietar komunismotik urrundu zela frogatzeko erabili baitzuen abagune hura. Bestalde, PCEn kasuan, etapa horri Francoren heriotza, klandestinitatetik irtetea eta hauteskunde-prozesuetan parte hartzea gehitu zitzaizkion. Halako moldez, non aldaketa eta erronka handiko garaia izan baitzen antolakunde osoarentzat, eta militantziako hainbat sektorek indar-metaketa prozesu bat gauzatzeko taktika huts gisa erabili zituzten eraldaketa horiek. Hori horrela ez zela (alegia, zerbait estrategikoa izan behar zela) frogatu zenean –izan ere, arlo guztietako emaitzak negargarriak izan ziren– alderdiaren krisi geldiezia hasi zen.

Orain bai, hitz egin dezagun trantsizioaz zentzu hertsian. Nola igaro zen PCE denbora gutxian erbestean erresistentziaren erreferentzia izatetik Fragarekin batera ordena konstituzional berriaren alde bozkatzera?

Historikoki pentsatzeak erakusten digunez, iragana oso gutxitan igarotzen da linealki, hau da, une bakoitzeko agendako presentismoek markaturik, konpartimentu higiezinak bailiran. Historiako aldi jakin batzuetan gertatzen den bezala, urte batzuetan badirudi ez dela ezer gertatzen; egun gutxian, berriz, eraldaketa erradikalak etor daitezke. Logikoa denez, bi egoera horiek estuki lotuta daude; izan ere, ezer aldatzen ez zela zirudien tokian, ordena sozial osoa suntsitzeko oinarriak ezartzen ari ziren. Ildo horretan, komeni da eraldaketa horiek iraupen luzeko prozesutzat hartzea, eta ez azken uneko aldaketatzat. Izan dezagun kontuan kantitatetik kalitaterako eraldaketa dialektikoa, Engelsek *Anti-Dühringen* aipatzen zuen bezala. Bada, antzeko zerbait gertatu zitzaion PCEn hamarkada horietan guztietan. 1930eko hamarkadaren hasieratik 1990eko hamarkadara arte alderdiaren norabidean izan ziren etengabeko aldaketak mailakatuak izan ziren, baina baita geldiezinak ere. Beraz, diktadorea hil zenerako, alderdiaren zuzendaritzaren epe laburreko eta luzeko helburuak oso urrun zeuden Internazional Komunistaren Espainiako Atala sortzeko proposatu ziren haietatik. Egia da, halaber, errealtate horren plano desberdinei begiratzen badiegu, bi alderdi erabat desberdin diruditela; adibidez, dikotomia horren erakusle da 1976an Carrilloren adierazpenen aurrean auzo eta lantegietako militantziak izan zuen borroka gordina. Horregatik, beharrezkoa da oinarrietan edo tarteko egituretan gertatzen dena eta Komite Exekutiboak aldarrikatzen duena bereiztea. Carrillok trantsizio garaiko eguneroko adierazpenetan izan zuen eldarnioa –1978ko Konstituzioak "sozialismorako autobidea" ekarriko zuela eta antzeko beste esaldi arranditsu batzuk esan zituen– alderdi komunista baten zuzendaritzaren erabateko mutazioaren testuinguruan baino ezin da ulertu. Izan ere, alderdi komunista horrek, puntu horretan, beste zerbait bihurtzeraino eboluzionatzea erabaki zuen.

Zer eztabaida eta haustura eragin zituen PCEn "joera-aldaketa" horrek?

Lehen aipatu dudan bezala, orain arte aztertu dugunaren arabera, badirudi ANParen potentzial zismatikoak ez zuela berehalako eraginik izan; ordea, ondoeza, talkak eta zenbait kanporatze ere eragin zituen. Hala eta guztiz ere, ezin da hitz egin eztabaida edo haustura kolektibo handi bati buruz, ez behintzat hasierako puntu horretan. Egia da gazteen eta erbesteratuen sektore minoritario batzuek, neurri batean txinatarren eta sobietarren arteko hausturak eraginda, argi eta garbi kritikatu zutela ANPa, alderdiaren "errebisionismoaren" hasiera zelakoan. Hala ere, PCEn baitan gutxi errotutako joera izan zen; funtsean, indar exogenoz elikatu zen, eta Espainiako Estatuko mugimendu komunistaren barruan azpikultura berri bat sortzea ekarri zuen: maoismoa.

Garaiko beste fenomeno bat Espainiako komunismoaren disidentzia ortodoxoa izan zen: denboran zehar gehiago hedatu zen, alderdian benetako eragina izan zuen, eta gaiaren aldetik nolabaiteko jarraitutasuna ere izan zuen. Mugimendu hori elkarren artean harreman handiak zituzten hiru olatu bereizik osatu zuten, eta barne-mugimendu plurala eta heterogeneoa bazen ere, motibazio bateratua zuen: beren kultura politikoaren ikuskera klasikoak berezkoa zuen nortasun komunista defendatzea. Internazionalismo proletarioak, obrerismoak eta frankismoaren aurkako erresistentzia armatuaren oroimenak, besteak beste, funtsezko zeregina izan zuten disidentzia-mugimendu horretan.

Zehazki, lehen olatuak Txekoslovakiako inbasioaren aurrean PCEk izandako jarreraren kritikan izan zuen jatorria. Jarrera horren ondorioz, militantziaren "matxinada primitibo" masibo bat gertatu zen, bai Espainian eta baita erbestean ere. Gertaera hori alderdiaren heldutasunaren adibide gisa jarri ohi da, dageneko finkatua baitzuen Carrillok aldarrikatutako ildo, baina narratiba hori ez da inondik ere egiazkoa. Buruzagi-kupulari zinez egin zion egoerak gainezka oinarri militantearen ezezko masiboaren ondorioz; izan ere, masek sobietarren jarrera babestu zuten. Azkenean, alderdi-diziplinak oinarriak baretzea lortu zuen, zeinak bere DNA komunista kolokan jartzen zelako baino ez zuten protestatzen. Hala ere, ez zen desadostasun horren amaiera izan: harrezkero, hainbat sektore militantek

ildo politikoaren gai gero eta gehiago salatu zituzten. Alderdiaren barrutik koordinatzen ziren, kanporatzen zituzten arte. Halaber, disidentzia-mugimendu horren liderrak, hala nola Enrique Lister eta Eduardo García, pertsona ospetsuak ziren alderdian, ibilbide luzea zuten, eta haren memoriarekin lotura estua. 1971n, VIII. kongresu paralelo bat egin zuten eta alderdi berri bat sortu zuten, "benetako" PCE gisa aldarrikatu zutena. Zoritxarrez, egoen arteko borrokak eta programa-desberdintasunek 1973an banaketa berri bat ekarri zuten: batetik, Eduardo Garcíaen PCE (VIII. eta IX. kongresuak) eta, bestetik, Lísterren Partido Comunista Obrero Español. Atomizazio horrek borroka proletarioaren baitan esku hartzeko ezintasunera eraman zituen bi erakunde horiek.



Adiskidetze Nazionalerako Politika

Garaiko beste fenomeno bat Espainiako komunismoaren disidentzia ortodoxoa izan zen: denboran zehar gehiago hedatu zen, alderdian benetako eragina izan zuen, eta gaiaren aldetik nolabaiteko jarraitutasuna ere izan zuen. Mugimendu hori elkarren artean harreman handiak zituzten hiru olatu bereizik osatu zuten, eta barne-mugimendu plurala eta heterogeneoa bazen ere, motibazio bateratua zuen: beren kultura politikoaren ikuskera klasikoak berezkoa zuen nortasun komunista defendatzea

Laurogeiko hamarkadako lehen urteetan PCEren krisi handiena gertatu zen. Urte gutxiren buruan, erakundeak eztanda egin zuen arrazoi askorengatik: bete gabeko itxaropenak, hauteskundeetako porrota, barne-borroka ugariak, frankismoaren osteko marko berria sendotzea, etab. Hala ere, ahultasun-testuinguru horretan, haren militantziako gero eta sektore gehiagok identitate komunistaren eta sozialismoa arautzen duen horizontea mundu mailan galdu izanari egotzi zioten porrota

Disidentzia ortodoxoaren bigarren olatua 70eko hamarkadaren hasieran garatu zen, itxuraz loturarik ez zuten sektoreek barne-demokraziarik ez zutela salatu zutenean. Alde batetik, PCEko Ezkerreko Oposizioaren (OPI) eraketa dugu, unibertsitarioek eta profesional liberalek bultzatutako barne-korronte moduko bat; kide horiek marxismo-leninismoaren barruan beste erreferente teoriko modernoago batzuk erabili zituzten. Joera klandestino gisa bere lana ezin zitekeen negargarriagoa izan; baina, egia esan, ekoizpen teoriko iradokitzailea izan zuen, eta baita trantsizio-prozesuari buruzko analisi nahiko zehatzak ere. PCEk sektore disidente batzuk berreskuratzea lortu zuen (adibidez, Javier Sauquillo abokatua, Atochako hilketan eraila), eta, ziklo berriarekin, OPIren zuzendaritzak Langileen Alderdi Komunista (PCT) bilakatzea erabaki zuen. Hala ere, laster isolatuta geratu ziren, eta lehen olatuko sektoreekin harremanak hasi zituzten. Horiekin batera Espainiako Alderdi Komunista Bateratua (PCEU) sortu zuten, baina, berriro ere, militantzia eta proiektu politiko komunista ulertzeko modu desberdinek haustura eragin zuten. Egoera negargarria eta zentzugabea zen, sigla berberak zituzten hainbat talde existitzen baitziren, eta ez zen hori bigarren olatu honen barruko erakunde bakarra izan: 70eko hamarkadaren hasieran, PCE Berreskuratzeako Oinarrizko Zelulak sortu ziren, Pepe Satuék eta Fernando Sagasetak zuzenduta. Mugimendu horren argudio legitimatzailea zertxobait kafkiarra zen, babesgune zuten estatutuetao puntuak baitzioen komunisten betebeharra, zuzendaritzarekin harremanik ez bazuten, autonomoki antolatzea zela. Erakundearen noraeza salatu zuten eta zuzendaritza salatu zuten azken kongresuan onartutakoez bestelako estatutuak zituen alderdi bat legeztatzeagatik. Erakunde gisa egitura nahiko likidoa zuen arren, arrakasta handiak izan zituen mugimendu sozialetan edo hauteskundeetan parte hartzeari dagokionez. Sagaseta diputatu izan zen Madrilen (1979-1982), eta zinegotziak izatera iritsi ziren Las Palmasen eta Granadan.

Zer aldatu zen 80ko hamarkadaren hasieran, carrillismoa alderditik bota zutenean?

Laurogeiko hamarkadako lehen urteetan PCEren krisi handiena gertatu zen. Urte

gutxiren buruan, erakundeak eztanda egin zuen arrazoi askorengatik: bete gabeko itxaropenak, hauteskundeetako porrota, barne-borroka ugariak, frankismoaren osteko marko berria sendotzea, etab. Hala ere, ahultasun-testuinguru horretan, haren militantziako gero eta sektore gehiagok identitate komunistaren eta sozialismoa arautzen duen horizontea mundu mailan galdu izanari egotzi zioten porrota. Egoera nahasi horretan, disidentzia ortodoxoak dimentsio askoz handiagoa hartu zuen, eta hirugarren olatua sortu zen. Mugimendu hori ez zatekeen posible izango, ez behintzat neurri berean, PSUCek ez balu krisirik izan bere V. kongresuan, 1981ean. Lehen aldiz, kongresu komunista bateko ordezkariak tesi programatikoen puntu garrantzitsuak bertan behera uztea lortu zuten, eta Carrilloren politikak aurrez aurre gaitzetsi zituzten, eurokomunismoak, beren egunerokoan, "grebak zapuztea" zekarrelako. Kontua azkar bukatu zen: emaitzak baliogabetu ziren, kudeatzaile talde bat muntatu zen kanpoan eta kanporatze masiboak izan ziren. Tentsio horrek sektore zalantziatiak pausoa ematera behartu zituen, beren kideei elkertasuna adierazi baitzieten. 1982an Partit dels Comunistes de Catalunya sortu zuten, 5.000 militante baino gehiago zituen, gehienak proletarioak.

Bartzelonan gertatutakoa pizgarri izan zen Espainiako Estatuan sakabanatuta zeuden taldeentzat, eta, bereziki, PCEren barruan. Urrats garrantzitsu bat Ignacio Gallego antolakuntza-arduradunaren dimisioa izan zen –une horretan leninista sutsu bihurtua zen–. 1984ko urtarrilean Partido Komunista sortu zen, 1986an "de los Pueblos de España" gehitu behar izan zuena lege-arazoak saihesteko. Antolakunde berri horrek arrasto katalan handia izan zuen, nahiz eta *principat*-etik kanpo ez zen lortu jatorrizko joeren kohesio handirik. Sektore jakin batek laster utzi zuen alderdia, PCEren iraganarekiko autokritikarik ez zuelako eta gai estrategiko batzuetan moderatuak zirelako. Hala eta guztiz ere, hasierako urteak ilusioz beteak izan ziren militantziarentzat, industria-birmoldaketaren, Espainiak NATOn jarraitzearen eta abarren aurkako borrokan murgilduta baitzeuden. Ordea, itxaropen handiegiak izan eta ez betetzeak, Moskuren presioak eta buruzagien oportunismoak urte batzuk lehenago utzi zuten alderdirantz hurbilarazi zituzten.



Julio Anguita gaztea, PCEren Komite Zentralaren osoko bilkuraren itxieran hizketan, 1979an

Gerardo Iglesias bere lehen prentsaurrekoa ematen, PCEko idazkari nagusi izendatu berrian, 1982ko azaroan



Sektore handi bat alderdian sartu zen berriro 1989rako, Europako Ekialdeko “sozialismo errealean” suntsipenaren testuinguruan, eta nolabaiteko garrantzia izan zuten beste sektore batzuek PCE desagiteko egindako saiakeren aurka. Hortik aurrera, PCE "lobby" baten modukoa bihurtu zen, Izquierda Unida itzalean kontrolatzen zuena, eta orain presentzia publiko handiagoa duen alderdi bihurtu da

Hala ere, kontua da ortodoxoak PCE barrutik ateratzek ere ez zuela barne-gatazkak deuseztatzea lortu. 1985ean, Carrillo, hiru urte lehenago Gerardo Iglesiasek ordezkatu zuena, kanporatua izan zen bere akolitoekin batera. Hala ere, espero izatekoa zenez, betiereko idazkari nagusiak ez zuen politika aktiboa utziko hirurogeita hamar urte besterik ez zituenean. Noraezera ihes eginez, alderdi berri bat eratzea erabaki zuen, urte haietan boladan zegoen "komunisten batasunaren" mantraren pean. Erakundeak arazo batzuei aurre egin behar izan zien, zorpetua baitzegoen hauteskunde-kanpainak ordaintzeko eta CCOOtik dirua desbideratzeko. Ideologiari dagokionez, alderdia indartsu hasi zen, Urriko Iraultzaren oroimena aldarrikatuz, eta azkenean kutsu europazaleko laborismoaren aldeko apustua egin zuen. “Espainiako Langileen Alderdia - Batasun Komunista” erakundearen existentzia laburrak merezi zuen amaiera izan zuen. 1991n, SESB formalki desagertu zen urte berean, PSOEn sartzeko eskatu zuten haren kideek.

Nola eragin zuten gertakari horiek guztiek PCEren ildoaren eta praktikaren garapenean?

Gerardo Iglesiasen alderdia gero eta murriztuago zegoen, baina arrakastaz identifikatu zuen NATOren kontrako mugimenduak Espainia osoan izan zuen potentziala, eta hauteskunde plataforma bat eratzen saiatu zen mugimendu horretatik etekina ateratzeko. Hori dela eta, 1986an Izquierda Unida izeneko koalizio bat osatu zuen talde marjinalekin batera, hala nola Tamamesen alderdi sozialista, Alderdi Karlista edo bere buruari "Alderdi Humanista" deitzen dion sekta bat. Funtsean, PCEren zuzendaritzak kontrolatzen zuen pantaila bat zen, baina itxura atseginago batekin. Erakunde horiekin batera, PCPE ere gonbidatu zuen, baina oso bigarren mailako postuetara baztertu zuen eta logoa erabiltzea debekatu zion (igitaia eta mailua eramateagatik). Estrategia horri esker, eragina irabazi zuen eta beste prozesu garrantzitsu bati ekin zion. Kasu honetan, dinamika hori bere ondorengo Julio Anguitak burutu zuen; erakunde ortodoxoak desagiten saiatu zen, erakunde horretako buruzagiekin zuen hurbiltasunaz eta PCEra itzultzeko zuen jarrera onaz baliatuz. Batasun horretarako lan-materialak irakurriz gero, argi eta garbi ikus daiteke bi sektoreak ondorio desberdinak ateratzen ari zirela adostasun-puntu beretatik. Nolanahi ere, erakunde horretako sektore handi bat alderdian sartu zen berriro 1989rako, Europako Ekialdeko “sozialismo errealean” suntsipenaren testuinguruan, eta nolabaiteko garrantzia izan zuten beste sektore batzuek PCE desagiteko egindako saiakeren aurka. Hortik aurrera, PCE "lobby" baten modukoa bihurtu zen, Izquierda Unida itzalean kontrolatzen zuena, eta orain presentzia publiko handiagoa duen alderdi bihurtu da. ●

BIBLIOGRAFIA

Erice, F. (dir.) *Un siglo de comunismo en España II. Presencia social y experiencias militantes*. Akal, 2022.

González de Andrés, E. *¿Reforma o ruptura? una aproximación crítica a las políticas del Partido Comunista de España entre 1973 y 1977: programa, discurso y acción sociopolítica*. El Viejo Topo, 2017.

Abad García, E. y Xavier (dirs.), *Desencanto y disidencia. Estudios sobre la crisis del comunismo en España*. Universidad de Valladolid, 2023. (descarga gratuita en <https://uvadoc.uva.es/handle/10324/61688>)

Abad García, E. *A contracorriente. Las disidencias ortodoxas en el comunismo español (1968-1989)*, PUV, 2022.

Juan Carlos I.ak harrera egiten die Zarzuelan PCEko idazkari nagusi Julio Anguitari eta haren aurreko idazkari nagusi Gerardo Iglesiasi, 1988ko apirilean



MENDEKOTASUN POLITIKOAREN BIDEA:

ESPAINIAKO ALDERDI
KOMUNISTAK GAUR EGUN
DUEN ESTRATEGIARI BURUZKO
OHARRAK

Testua — **Lara Montilla Navarro eta Aritz Rodríguez Galán**

Irudia — **Zoe Martikorena**



Estatu burgesaren eta haren gobernue-tan parte hartzearen inguruko eztabai-dak ez dira berriak; izan ere, askotan sortu dira nazioarteko langile mugimenduaren eta mugimendu iraultzaileen barnean. Espainiako Estatuaren kasuan, Espainiako Alderdi Komunita (PCE) har dezakegu eztabaida horien eragile nagusitzat, eta alderdi hori ez da aipatu errealtatetik kanpo gelditzen. Azken urteetan, hain zuzen ere, bereziki nabarmena izan da egitate hori, “historiako Gobernurik aurre-rakoiena” deiturikoan sartzearen ondorioz.

Duela gutxi azaleratutako eztabaida hori ez zen PCEtik “kanpo” soilik gertatu, baina, alderdi barruan, eztabaida horrek lehendik zeuden kontraesanak areagotzeko edo, gutxienez, erabaki zehatz hori zalantzan jartzeko balio izan zuen. Hau da, hasiera batean Gobernuan sartzearen “taktikari” kritika gisa agertu zirenak berehala sakondu ziren, bereziki gazte antolakundeko kide ginenon artean, eta kritika horiek inpu nazio estrategikoaren eta haustura politikoaren itxura hartu zuten. Egia esan, alderdi horren ibilbidea aztertuz gero, mugimendu oportunistak hori logikoa baino logikoagoa zen: PCE Ordenaren Alderdiaren parte den heinean, haren zeregina Trantsiziotik hona proletariotzak lor zitzakeen maximoak markatzea izan da, Kapitalak ezarritako maximoak, alegia –eta Kapitalak balorizazio zailtasun larriak izango zituen gero eta maizago–.

PCEren historia hurbila eta barne-miseriak eza-gutzen dituen oro ziur aski ez da harrituko azken urteotan alderdiak bizi izan duen krisia aipatzen badugu: familien arteko liskarrak, taldexken arteko azpijokoak, alderdiaren eta gazteriarren arteko gatazkak, definizio ideologikorik eza, militantzia gero eta murriztagoa, gainbeheran dagoen ondarea eta abar.

Krisi hori ez dute baretu ez “iraultza pasiboen” saiakeren bidez, esaterako, “leninismoa” izendapen huts gisa berreskuratuz beren XX. Kongresuan –ondoren ministerioetan eserlekuak hartuko zituzten horiek beraiek bultzatuta–; ezta XXI. Kongresuan gazteria komunistaren aurka egindako errepresio burokratiko irekiaren bidez ere.

Izan ere, krisi hori, Gobernuan sartzeak areagotu duen arren, PCEk ordezkatzen duen proiektu politikoaren porrota ez onartzeak hartzen duen forma besterik ez da: proletarioen mendekotasun politikoa langileen aristokraziaren programarekiko eta, beraz, burgesiarekiko. Izan ere, gaur egun, mi-seriaren kudeaketan PCEren parte-hartzeari egiten

PCE Ordenaren Alderdiaren parte den heinean, haren zeregina Trantsiziotik hona proletariotzak lor zitzakeen maximoak markatzea izan da, Kapitalak ezarritako maximoak, alegia –eta Kapitalak balorizazio zailtasun larriak izango zituen gero eta maizago–

zaion kritika estrategia sozialdemokrata zaharrari egiten zaion kritika da, nahiz eta estrategia hori zentro inperialistako XXI. mendeko “modernitatez” estalita eta nostalgia obrerista eta errepublikanoz apainduta egon.

TAKTIKAREN TAKTIKA TAKTIKOA

Abiapuntutzat hartu behar dugu ezin dela “PCE-ren estrategiaz” hitz egin, bakarria balitz bezala, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, azpi-marragarria da dokumentazio programatikoaren barruan kontraesan teoriko ugari aurki daitezke-ela. Bigarrenik, eta aurrekoa gutxi balitz bezala,, ez dago dokumentazioaren islarik eguneroko praxian, eta, beraz, praxi hori militanteen borondate indibidualaren eta taktizismo absolutuaren mende geratzen da erabat. Hirugarrenik, borondate indibidual eta taktizismo horrek bizpahiru “barne-familia” dauzka, matrioxka sorta batean bilduak, hain zuzen Izquierda Unida, Unidas Podemos edo Sumar izenda ditzakegunak. Beraz, azalpena hiru zatitan banatuko dugu: paperaren gaineko taktika, praxiaren taktika eta taktika kritikoa.

Paperaren gaineko taktika

Azken hamarkadan PCEren barruan izandako eztabaidetan argi geratu da alderdia gai dela ia edozein kontzesio erretoriko edo sinboliko bere egiteko paperaren gainean, betiere horrek bere funtzio soziala aldatzen ez badu. Errealitate zehatzaren azterketa zehatza gauzatutako ekintzen politikarekin nahastu nahi izan da. Edo, bestela esanda, analisisia eta koiuntura-lana taktizismoarekin nahastu da. Adibiderik onena nahiko berria da: PCEren XX. kongresuan, 2018an, printzipio leninistak berreskuratzea onartu eta Alderdiaren berreraikuntzaz hitz egin zen, eta horrek gazteekin –beti dira deserosoak– harremanak estutzeko aukera eman zuen. Urtebete geroago, gutxi gorabehera, eta ezein organok berretsi gabe, PCE Espainiako Gobernuaren parte izatera igaro zen. Hau da, hitzontzikeria erradikalista izan zen hainbat hamarkadako desbideratze eurokomunistaren inguruan egindako itxurazko autokritika; ustezko zentralismo demokratikoa edo ekintza-batasuna tesi komunisten errepresio burokratikorako erabili ziren; eta Alderdia berre-raikitzeak benetan esan nahi zuena honako hau zen: PCE™ siglen itsasontzia ez zedila hondoratu.

XXI. kongresua 2022an egin zen, tentsioan murgilduta, eta alderdiko idazkari nagusi Enrique Santiago zela, 2030 Agendako Estatu idazkaria. Dokumentazioaren lehen orrialdeetan, kapitala birbalorizatzeko nazioarteko ezintasuna, eskuin

Azken hamarkadan PCEren barruan izandako eztabaidetan argi geratu da alderdia gai dela ia edozein kontzesio erretoriko edo sinboliko bere egiteko paperaren gainean, betiere horrek bere funtzio soziala aldatzen ez badu

muturraren gorakada eta edozein aldaketaren protagonistak langile klasea izatearen beharra azaldu ondoren, honako hau irakur daiteke:

“Gure etorkizuna demokraziaren erradikalizazioa da, gure proposamen politikoaren elementu sozialistak beregan duen matxinada- eta haustura-zentzua baliatuz egin beharrekoa. [...] Sozialismoaren Alderdiak berekin dakar demokrazian sakontzea, errepublika federal baten bidez. Errepublika horrek botere osoa langile klasearentzat erreklamatzeko, ekonomiaren antolaketa demokratikoaren bitartez, eta ingurumena errespetatuko duen zein langileen interesen zerbitzura egongo den ekoizpen eredu jasangarri berri batekin”.^[1]

Pasa den urtean, PCEk bere “proposamen estrategikoa” plazaratu zuen. Dokumentu hori XXI. kongresutik atera zen –haren legitimitatea tribunen esku geratu zen–, eta balio digu ulertzeko nola xehatzen eta justifikatzen dituzten paperaren gainean hainbeste irrikatzen duten –eta praktikan eskuraezintzat aurkezten duten– “ortzi muga” edo “etorkizun” sozialista horretarako bideak. Dokumentu horretan, erreformismoaren ikuspegi etapista klasikora joz, honela zirriborratzen zuten beren estrategia:

“Gizartearen etapa sozialistan sartzeko behar beste indarra izan arte itxarotea ezinezkoa dela ziurtatuta, beharrezkoa da etapa bat baino gehiagoko estrategia definitzea: epe laburrera, ertainera eta luzera. Espainiako Estatuaren kasuan hauek aipa ditzakegu: lehen fasea indar metaketa / bigarren fasea prozesu eratzailea eta III. Errepublika/ hirugarren fasea sozialismoa”.^[2]

Argi ikus dezakegu materialismo historikoaren aplikazioa ez dela inon ageri. Lehenik, demokraziaren ideal bat dagoela argudiatzen dutelako (demokrazia “erradikalizatua” eta “sakondua”); bigarrenik, demokraziaren ideia horrek lege kapitalistei nolabait erantzuten diela edo kontrapisu gisa jokatzen duela uste delako; eta hirugarrenik, proletariotzaren zeregin historikoa bere burua baieztatzean oinarritzen dela ulertzen delako, bere buruari uko egin beharrean. Hau da, sozialismo hitza erabat hutsik geratzen da, zeregin iraultzaileen betiereko atzerapena bilatzen duen etapismo pobre baten biktima. Dakigunez, hori ez da berria; XX. mendeko frontepulismoaren premisa interklasistak eta erreformistak gainditzeko ezintasuna baino ez da.

Sozialismo hitza erabat hutsik geratzen da, zeregin iraultzaileen betiereko atzerapena bilatzen duen etapismo pobre baten biktima

Indar metaketarako fasea aitzakia gisa erabiltzen da salbagailu elektoral baten bilaketa amaigabea, proiektuaren porrota –politikoa eta ekonomikoa– saihestu asmoz: Izquierda Unida, Ahora en Común, Unidad Popular, Ganemos, Unidas Podemos, Sumar eta, orain, Convergencia por la Democracia. Sozial-demokrazia erradikalak “ezkerraren batasun” gisa ospatzen dituen espazioak sorgin-gurpilak dira –gero eta iraupen laburragoak–, eta erdi mailako sektoreekin zein hegemonia burgesak menderatu-tako beste zenbait talderekin konpromisoak ezartzen dituzte, burujabetza-helburuekin apainduta:

“ekoizpen-eraldaketarako industrializazio-eredua, gizarte eta ingurumen jasangarritasunaren gakoetatik abiatuta”; “eduki teknologiko altuko eta ertain-altuko industria-ondasunen ekoizpena dibertsifikatzea eta sustatzea”; “kanpo merkatu nagusietan posizioak mantentzeko edo irabazteko gaitasuna duten industria-adar aurreratuek eratzea, Estatua partaide izanik.”^[1]

Bestalde, prozesu eratzailearen eta III. Errepublikaren faseak bi iturburu ditu. Lehena, sozialismo-rako bide demokratikoan oinarritutako teoriak, edo sozialismoa ekarriko duten etapa demokratiko-burgesen beharra, proletariotzaren diktadurari kontra-jarrita. Nabaria da apustu estrategiko hori 70eko hamarkadan alderdi komunista batzuek garatutako tesi eurokomunistetatik eratortzen dela, eta “XXI. mendeko sozialismoa” delakoaren teoriak eta Latinoamerikako esperientziek elikatzen dutela.

Bigarrena, nostalgia. Iragan denborarekiko nostalgia berebiziko rola jokatzen du, baina uko egiten zaio esperientzia historiko horietatik eratorritako ikasketa horien berrikuspen kritikoari, gaur egungo aplikaziorako leudekeen aukerei. Ezinbesteko papera dauka ukapen horrek. PCEren historia, langile mugimenduarena eta nazioarteko mugimendu komunistarena gudu epiko gisa gordetzen dira, harrotzeko, oroitzeko eta ospatzeko gertakari gisa, baina orainaren gaineko edozein agentzia mota ukatzen zaie. Gaurkotasunarekin duen erlazio bakarra errebisio-nismo historikoaren eskutik dator, esperientzia historiko oro desitxuratuz, gaur egungo erabakiekin bat

etor dadin eta, horrela, autoritate-argudio faltsuen bidez, egungo estrategia eta taktika justifikatzeko.

Era berean, historiaren ikuspegi nostalgiko horrek guztiz bustitzen du lortu nahi den Alderdi Komunista irudikatzeko eta sozialismoa eraikitzeko modua; izan ere, sozialismoa ez da gaur egungo aukeretan eta gaitasunetan oinarrituta pentsatzen, baizik eta “iraganeko lorien” erreprodukzioaren bitartez, edozein mugimendu epikotasunez jantziz eta beharra bertute bihurtuz. Horrela, Alderdiaren berreraikuntzari buruzko aipamenak oso urriak dira dokumentazioan, eta antolakuntzaren indartze txiki batean laburbilduta ageri dira: *“kuantitatiboki eta kualitatiboki haztea ahalbidetuko dion antolakuntza-iraultza”*^[1].

Praxiaren taktika

Kontraesanez betea egoteaz gain, apustu estrategikoa biltzen duen dokumentazioa itxurakeria hutsa ere bada; izan ere, PCEren eguneroko jarduera politikoa taktizismo eta oportunisto autojustifikatuak dira nagusi. Erabat hausten da bitartekoen eta helburuen arteko harremana (nahiz eta oso zalantzarriak izan), eta, horretarako, inprobisazioa edo unean uneko egoeretara muturreraino egokitzzea gailentzen da, helburu estrategikoak alboratuz eta norberaren edo siglei lotutako etekin politikoa lehenetsiz.

Beraz, lehen aipatutako etapak edergarri baino ez dira; izan ere, benetako estrategia, azken finean, erradikalizatutako klase ertainaren interesen defentsa da, lan-indarraren salerosketan baldintza hobeak izan ditzaten eta gizarte burgesaren administrazio-organoetan posizio politiko hobeak eskura ditzaten.

Bestalde, espontaneotasunari bide emateko espazio moduan irakurria da instituzioetatik kanpoko jarduera; langile aristokraziak zuzentzen du ideologikoki ulerkera hori. Gizarte mugimenduek egiten dutena egiten dutela, ondo eginda egongo da eta elikatu egin beharko da, noizbait “dena ebatziko duen eztanda handia” gertatuko den sinesmen autokonplazientearen pean^[3]. Mugimendu sozialen barruan, sindikatuak garrantzi berezia hartzen dute, ortzi mugarik eza obrerismoak, klasearen autoafirmazioak eta mugimenduaren aldeko mugimenduak konpentsatzen baitute. Estatuaren eta masaren arteko dialektikan funtsezkoa den antolamendu eredua duten espazioak dira, eta eskakizunak kanalizatzea bideratuta daude. Horrela, dominazio burgesak berezko duen ekonomiaren eta politikaren arteko bereizketa erreproduzitzen da.

Historiaren ikuspegi nostalgiko horrek guztiz bustitzen du lortu nahi den Alderdi Komunista irudikatzeko eta sozialismoa eraikitzeko modua; izan ere, sozialismoa ez da gaur egungo aukeretan eta gaitasunetan oinarrituta pentsatzen, baizik eta "iraganeko lorien" erreprodukzioaren bitartez, edozein mugimendu epikotasunez jantziz eta beharra bertute bihurtuz

Gainera, litekeena da militanteak adina estrategia egotea; izan ere, ez dago egungo eztabaida estrategikoaz edo Nazioarteko Mugimendu Komunistaren historian gertatu denaz hausnarketa kontzienterik, soilik ortzi muga sozialistari buruzko sinesmen multzo bat. Baina ez dugu geure burua engainatu behar, PCEn intelektual eurokomunistak daude, baina, hortik aparte, ez dago praktika politiko desideologizaturik; praktika bat kontzientzia sozialistak gidatzen ez badu, kontzientzia burgesak gidatzen du.

Beraz, PCEren agenda sozialdemokraziaren agenda da, errebisionismoak hamarkadak baitaramatza bere baitako emantzipazio-ametsik lotsatiena ere garbitzen. Erretorika iraultzailea mitinetarako utzita eta ustezko ezkerkeriaren aurrean sosegua aldarrikatuz, ironikoki, kapitalismo demokratikoki perfektionatua gertuago bide dago-eta sozialismoa baino.

Taktika kritikoa

Deskribatu dugun taktika hori burokrazia eta joko zikina erabiliz erreprimitzen duen presio talde txiki batek “zuzentzen” du. Horien aurrean, militante kritikoa ugari daude (batzuetan, eskualde osoak), batzuetan kohesionatuagoak eta beste batzuetan ez hain kohesionatuak. Horietako askorentzat, eta duela urte askotatik, “PCE salbatu” nahi izateak nekea, eztabaidak, demandak, kanporatzeak eta borroka fisikoak ere ekarri ditu. Hala ere, PCEren bahiketaren kontakizunak dilema faltsu bat ezkutatzen du. Ez gaude molde maoistako bi ildoren arteko borroka moduko baten aurrean; kritikotasunak kritikotasun, PCEren osoa dago errebisionismoak erasanda. Sektore kritikoen aldetik, beraz, ez dago taktika eta estrategia koherente eta apurtzailerik garatuko duen

PCEren agenda sozialdemokraziaren agenda da, errebisionismoak hamarkadak baitaramatza bere baitako emantzipazio-ametsik lotsatiena ere garbitzen

kontra-proposamen politikorik, eta obrerismoa eta erradikalismo diskurtsiboa dira testu eta txosten horietan nagusi.

PCEren bahiketaren kontakizun horren beste aldeia sigla horien antolaketa indartzea izango litzateke, berreraikuntzarako apustu gisa. Argudiatzen da Alderdi Komunistaren berreraikuntza PCEtik igaro behar da soilik, kontuan hartu gabe azken hori historikoki ezinbestean determinatuta dagoela eta idealismoan erortzen ari dela. Aipatu nostalgiaren eta zenbait figura historikoren aldarrikapen akritikoaz batera, Alderdiaren ulerkera hori ez da ulerkera ofizialetik ia batere urruntzen.

Zuzendaritzarekin zuzenean konfrontatzeaz eta antolakuntza indartzeaz gain, kritikoei –batez ere gazteenek– jarduerarik eza alde batera uztea eta prestakuntza dituzte arazoaren konponbidearen ataltzat. Hanka bat kalean eta bestea instituzioetan eduki behar den ideiaren aurrean, kalean egon beharra lehenestea aldarrikatu dute; hala ere, militante horiek egiten duten lan eskerga ere bat-baketotasunak jaten du. Ia kasu guztietan, jarduera hori egituren autorreprodukzioan eta gatazka instituzioei egindako eskakizunen bidez kanalizatzean datza, eta irtebide bakarra “publikoa” dela lirudike.

Beraz, PCE hausteko eta berreraikitzeke beharri dagokionez, gune horretan ezin izango litzateke Urriko Zikloaren azterketa seriorik egin, ezta Nazioarteko Mugimendu Komunistarena eta Espainiako Estatuan izan duen korrelatuarena ere, ondorioak suntsitzaileak izan baitaitezke. Hala, leninismoa kontsigna bihurtzen da, eta, kongresuak, familien arteko kontu-kitatze prozesu, norgehiagoka politiko-ideologikorako momentu izan ordez.

KONFLUENTZIAK

“Arazoa ez da Izquierda Unida, arazoa PCE da” hasi zen entzuten, 2016 inguruan, UJCE ren XIII. kongresuan. M15eko mobilizazioak eta Duintasunaren Martxak instituzioen bidez bideratu, eta, zehatzago, Podemos eragile bideratzaile gisa agertu izanak zenbait urteko hausnarketa-aldia ireki zuen gazte komunisten artean. Zerbaitek huts egiten zuen espazio politiko hartan, baina ez genekien zerk, eta Izquierda Unidaren inguruan lastozko panpina bat sortu zen, arazoa “etxean” zegoela pentsatzeko ezintasun dogmatikoak eraginda.

***Zerbaitek huts egiten zuen
espazio politiko hartan,
baina ez genekien zerk, eta
Izquierda Unidaren inguruan
lastozko panpina bat sortu
zen, arazoa "etxean" zegoela
pentsatzeko ezintasun
dogmatikoak eraginda***

PCEren arazoa ez da kudeatzaile txarrek bahituta egotea, ez sortu dituen nahiz parte hartu duen konfluentzietakoren bat, ezta Podemos haren etsai politikoa ere. Azken hamarkadan, eta bereziki Unidas Podemosekin, behin eta berriz gertatu dira barne-krisi latzak, PCE beste espazioaren batean disolba ez zedin IU ez uzteari lotuak. Horrek agerian uzten du, berriz ere, egoera kezagarria dela, ez bakarrik jarduera politikoaren oinarri gisa egiturak autorreproduzitzearen inertziaren arazoari dagokionez, baita PCEren eta burokrata eta politikari profesional batzuen biziraupena kolokan egoteari dagokionez ere. IUrik gabe eta/edo instituzioetan posturik izan gabe, desagertu egiten dira egoitza, militante edo lanpostu batzuk.

PCEk bere gazte antolakundea IUtik –edo dena delako hautagaitzatik– nola aldentzen zen eta hauteskunde hitzordu edo zerrendetan parte hartzeari nola uzten zion ikusteak konpon ezineko arrakala eragin zuen. Gero eta kontraesan gehiago agertzen ziren egunerokoan. Errepresioa handitzen ari zen, eta Alderdia berreraikitze bokatzeak urteetako estrategia entrista ugari birpentsatzera bultzatu zuen gazteria. Hala ere, aipatzekoa da, hain zuzen ere, PCEren taktika eta estrategia bere historian zehar zehatz-mehatz aztertu izanak bultzatu zituela gazteak hausturaren beharraz hitz egitera.

ONDORIOAK

Laburbilduz, PCEren miseriak justifikatzeko mahai gainean jarri nahi dituzten dozenaka elementu errugabetzaileak gorabehera (barne-krisiak, familien arteko tirabirak edo definizio ideologikorik eza), sozialdemokraziaren programa baino ez da PCEren programa. Interes kapitalisten menpeko taktika eta estrategia eta autoproklamazioan oinarritutako Alderdi Komunistaren ulkerak izateak ehunka militante komunista gazte hutsaltasun eta frustrazio politikora bultzatu dituzte ezinbestean hamarkadetan zehar.

Ondorio horretara iristeak, eta, aldi berean, hainbat lekutako milaka militantek independetzia politikoaren bidea posible dela erakutsi izanak gazte komunisten belaunaldi bat frustrazio horren beraren preso izatea saihestera eramán gintuen, eta erabaki koherente posible bakarra hartzera: gure interesetatik at zeuden klase interesetara azpiratzearekin hautsi, eta prozesu sozialista hedatzen laguntzea.

Modu horretan, geure egin genuen ondorio hau: Alderdi Komunista proletariotzak burgesiaren, haren programaren eta Estatu burgesiaren duen independentziaren burutze politiko eta organizatiboa da. Horrek saihestu ezinezko behar historiko hau ekarri zuen: “zaharra hil” behar zen berriari jaiotzen uzteko. ●

ERREFERENTZIAK

[1] Documentos políticos del XXI Congreso del Partido Comunista de España, julio de 2022: <https://www.pce.es/media/uploads/2023/03/01/424c2b40a1fc4f0899e47b0bbf58de41.pdf>

[2] “Programa estratégico del Partido Comunista de España”, febrero de 2024: https://pce.es/media/documents/def._PROGRAMA ESTRATEGICO_PCE.pdf

[3] Aguiriano, M. “¿Qué (des)hacer? Sobre la necesidad del Partido. Marx XXI: Independencia política”, 2024. Pg. 296.



PCE-REN KONTUAK ETA FINANTZAKETA

Testua — **Arteka**

Irudia — **Elena Martínez**

SARRERA

Egungo alderdi politiko instituzio-nalek irauten badute, Estatuaren es-kutik hainbat formatan jasotzen du-ten finantziazio publikoari esker da soil-soilik. Estatuko Kontuen Auzite-giaren arabera, alderdi gehienen ka-suan, finantziazio hori %80ra iristen da batez beste; finantziazio propioa, berriz, kopuru hutsaletara erori da.

Hasteko, nahiko argigarriak di-ra 2018 eta 2019an alderdi politikoek jasotako finantzaketa publikoko 555 milioi euroak, 2019ko hauteskunde-kanpainarekin bat, ezinbestekoak izan baitziren propaganda masiboa zabaltzeko, bai eta eguneroko jardue-ren gastuei aurre egiteko ere. Ez da harritzekoa, beraz, mekanismo ho-riek sortzen duten menpekotasuna, praktika politikoa forma instituzio-nal bakarraren arabera egiteko auke-ra ematen baitu soilik; hain zuzen ere formalki “egungo demokrazia” deitzen zaion horren arau zorrotzen pean.

Aipatu beharra dago, baita ere, araudiak erregulatu egiten dituela ekarpen ekonomiko pribatuak, ka-pital pribatuaren eta botere politi-koaren arteko harremana hain esplizi-tuki ez agertzeko saiakeran, behintzat hauteskunde-mailan.

Ikerketa honetan espektro politiko instituzionalean ezkerrean kokatzen den hegala-ren kontu ekonomikoak argitzeko saiakera egingo da, diru publiko edo pribatuarekiko izan de-zaketen menpekotasun maila noraino iristen den ulertu ahal izateko, alderdi gisa duten jardunetik nolako etekina ateratzen duten ikusteko eta gastuen nahiz diru-sarreraren osaera ikusteko. Hori guztia, Espainiako Alderdi Ko-munistak (PCE) eta haren antzeko al-derdiek erakusten duten asimilazio eta deriba erreformista saihestezina ho-beto ulertzeko helburuarekin. Alder-di horiek teorikoki emantzipatzaileak diren helburuak badituzte ere, aurpegi lagunkoiagoa izan dezan ahalegintzen diren kapitalismoaren kudeaketa bal-darrean parte hartzera mugatzen dira.

METODOLOGIA ETA MARKO KONTZEPTUALA

Ikerketa hau egiteko PCEk nahiz Izquierda Unida alderdiak (IU) beren gardentasun atarietan duten informa-zio publikoa batu da, eta urteko memo-ria ekonomikoko “sarrerak” eta “gas-tuak” kategoriak xehatu eta alderatu dira. Beste alderdi batzuei buruzko in-formazio zehatza eskuratzeko Garde-na web-orrialdea bisitatu da. 2019. eta 2023. urteetako hauteskunde-aldiko gorabehera ekonomikoak ulertzeko helburuz, egoki ikusi da 2017. eta 2023. urteen arteko dokumentuak aztertzea.

Aztertutako kategoriak ondoko eran aurkeztuko dira:

1. DIRU-SARRERAK

1.1. Jatorri publikoko diru-sarrerak

1.1.1. Funtzionamendu gastuetarako urteko dirulaguntza

1.1.2. Talde parlamentarioen ekarpenak

1.2. Jatorri pribatuko diru-sarrerak

1.2.1. Afiliatu, kide eta jarraitzaileen diru-sarrerak

1.2.2. Dohaintzak, legatuak eta bestelakoak

2. GASTUAK

2.1. Soldatak eta lansariak

2.2. Kanpo-zerbitzuak eta bestelako gastuak

3. EMAITZAK

Esan beharra dago hauteskundeetara modu independentean aurkezten di-ren beste alderdi batzuekin alderatuz gero, unean uneko desberdintasunak egon daitezkeela aurrekontuei dago-kienez. Ikus daitekeenez, aztertutako aldian, PCEk hauteskunde kanpainak gauzatu ditu Izquierda Unida fede-razioarekin, Elkarrekin Podemos al-derdiarekin 2019an eta Sumar alder-diarekin 2023an. Koalizioan egindako parte-hartzearen ondorioak ikerketa-ren aztergai nagusiak ez badira ere, testuan haiei dagozkien zenbait puntu mahairatuko dira.

Marko juridikoari dagokionez, fi-nantzaketa publiko nahiz pribatuen erregulazioari dagozkien legeak kon-tsultatu dira (bereziki, 8/2007 Lege Organikoa, uztailearen 4koa, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoa) osagarri gisa eta definizioetan ekar-pen zehatzak egin ahal izateko.

Azkenik, aipatutako iturrietan es-plizituki ageri ez diren datu estatistiko guztiak iturriek berek emandako in-formazioan zorrotz oinarrituta kalku-latu dira.

DATU EKONOMIKOEN DESKRIBAPENA ETA AZTERKETA

1. Diru-sarrerak

2017. eta 2023. urteen artean, erakundeak jatorri publikoko 3.917.342,67 euro eta jatorri pribatuko 9.247.038,18 euro jaso ditu, ondare-besterentzeetatik datozen diru-sarrerak edo ohiz kanpokoak di-renak kontuan hartu gabe, horiek be-reiz kontatzen baitira. Horrenbestez, 13.164.380,85 euro dira guztira azter-tutako aldiko ohiko jarduerari dagoz-kionak diru-sarrera garbietan; %30 diru-sarrera publikoak eta %70 diru-sarrera pribatuak.

Hasiera batean, aipatutako zifrak alderdi nagusien joera orokorrarekin bat ez datozela dirudi. Izan ere, 2023ko hauteskundeen aurretiko datuei erre-paratuz gero, ikus daiteke PP alder-diaren finantzaketaren %83 publikoa zela, eta berdin gertatzen da PSOE-ren kasuan, non zifra hori %68koa den. Jarraian zehatzago ikusiko bada ere, pribatutzat hartzen den diruaren atzean kutxa publikoetatik datozen partidak ezkutatzen dira. Halaber, ai-patu behar da Izquierda Unidak (fe-derazio horren barruan gauzatzen du PCEk bere jardun instituzional gehie-na), batez beste, %60tik gorako zuzeneko finantzaketa publikoa mantendu duela 2017az geroztik.

Finantzaketa publikoaren eta pri-batuaren urtez urteko aldakortasuna-ri erreparatuz, 2019tik alderdia bere diru-sarrera pribatuak egonkortuz joan dela ikus daiteke, baina behe-ranzko tendentzia agertzen du jaso-tzen duen diru publikoari dagokionez; hala, 2023an 2020an jasotako diru pu-blikoaren ia erdia deklaratu zuten.

1.1. Jatorri publikoko diru-sarrerak

Aurretik aipatu moduan, alderdi politikoen sostengu ekonomiko nugu-sia dira, eta jasotzen duten kantitatea erakundeetan duten ordezkari-tzaren arabera aldatzen da nagusiki. Salbues-pen bakarra aparteko dirulaguntzak atalean aurki daiteke, baina ez dugu aztertuko, aldizkako izaera duelako eta balio osoaren %1,88 hartzen duelako.

1.1.1.Funtzionamendu gastuetarako urteko dirulaguntza

Aurrekontu orokorretan ezartzen den partida ekonomikoa da, eta alder-diei zuzenean ematen zaie, haien ku-deaketarako. Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak alderdi bakoitzaren ordezka-ritzaren arabera-koak dira, eta insti-tuzioetan posizio onena dutenek beren jardunaren zati handi bat diru-iturri honen bitartez finantzatzen dute.

PCEk instituzio organoetan zuzeneko parte-hartzerik ez duenez, jasotzen duen zenbatekoa aldakorra da urtetik urtera. Ziurrenik, zenbateko hori IUrekin edo koalizioan aurkeztu den alderdiekin (Podemos eta Sumar) barne mailan ezarritakoaren arabera-koak izango da



Adibide bat jartzearren, PSOEk, finantzaketa mota honi esker diru gehien jasotzen duen alderdia izanik, 36 milioi euro jaso zituen 2022an bakarrik, eta alderdiaren finantzaketaren %40 suposatzen du horrek.

Kontrara, PCEk instituzio organoetan zuzeneko parte-hartzerik ez duenez, jasotzen duen zenbatekoa aldakorra da urtetik urtera. Ziurrenik, IUekin edo koalizioan aurkeztu den alderdiekin (Podemos eta Sumar) barne mailan ezarritakoaren arabera izango da. Horren guztiaren emaitza gisa, 3.158.986,04 euro dira guztira jaso dituztenak aztertutako zazpi urteetan, berezitasun batekin: 2017 eta 2023an ez zuten inolako dirulaguntzarik jaso. Interesgarria da ikustea PCEren zuzeneko parte-hartzea oso txikia izanik ere, jaso duten finantzaketa publiko zuzenaren %80,64a laguntza honetatik datorrela oso-osorik. Horrek argi uzten du zeinen onuragarria izan daitekeen alderdi batentzat ahalik eta ordezkaritza instituzional handiena lortzea.

Atal honekin amaitzeko, beharrezkoa da aipatzea IUk, bere aldetik, azken urteetan egonkor mantendu dituela laguntza honen bitartez jasotako diru sarrerak; hain zuzen, urtean 1,6 eta 2,7 milioi euro artean.


1.1.2. Talde parlamentarioen ekarpenak

Kategoria honetan, talde parlamentarioek ordezkaritza duten ganberek edo instituzioek emandako eta kudeatutako zenbatekoak sartzen dira. Aurretik aipatutako dirulaguntzek ez bezala, hauek organoek eurek kudeatzen dituzte eta jarduera parlamentarioarekin lotura zuzena duten jarduerak finantzatzeko balio dute. Zentzu horretan, laguntza honen onuradunak soilik laguntzak kudeatzen diren markoetan zuzenean-parte hartzen dutenak dira.

Behin hori esanda, ez da harritzekoa, nahiz eta alderdi gehienen bigarren finantzaketa iturririk handiena izan, PCEk soilik 484.630,29 euro airtortu izana, zeinaren %97 2023an metatzen den, ziurrenik funtzionamendu gastuetarako dirulaguntzarik ez jasotzearen truke.

IUk, bestalde, ia 27 milioi euro airtortu ditu aztertutako zazpi urteetan, horrela, taldearen finantziazio-iturririk handiena bihurtu da, alde handiarekin. Kopuru horiek IUri, eta PCERI zeharka, beren jardun parlamentarioaren zatirik handiena finantzatzeko balio diete.

JATORRI PUBLIKOKO DIRU SARRERAK



Arreta ematen du “afiliatu, kide eta jarraitzaileen diru-sarrerak” atalean jasotako zenbatekoaren aldakortasunak. Izan ere, oinarri militante sendo eta egonkor bat aurreikus zitekeen, batez bestekoak baino laguntza publiko gutxiago jasotzen baititu

1.2. Jatorri pribatuko diru-sarrerak

Jatorri pribatukotzat jotzen diren diru-sarrerak hauek dira: banakoen edo erakunde pribatuen dohaintzatik datozenak, afiliatuen kuotak, kargu publikoengandik jasotakoak, ondarearen etekinak eta zuzenean eta esplizituki finantzaketa publikotik ez datozen bestelako baliabideak.

Hala, jasotako zenbatekorik esanguratsuenak afiliazioetatik eta alderdiko kargu publikoen ekarpenetatik jaso ohi dira, nahiz eta ohikoa den, kontuak aurkezterakoan, zenbait jarduera “kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk” atal anbiguoan sartzea. Kasu honetan, aipatutako azken atal hori bereziki esanguratsua da.

1.2.1. Afiliatu, kide eta jarraitzaileen diru-sarrerak

PCEko oinarri militanteak egindako ekarpen ekonomikoa 2.532.412 eurokoa izan da aztertutako urte guztiak kontuan izanda; finantzaketa guztiaren %20,93.

Arreta ematen du atal honetan jasotako zenbatekoaren aldakortasunak. Izan ere, oinarri militante sendo eta egonkor bat aurreikus zitekeen, aurretik aipatutako arrazoiengatik, batez bestekoak baino laguntza publiko gutxiago jasotzen baititu. Inflexio-puntu bat atzeman daiteke 2018 eta 2019 artean, jasotako gutxieneko baliotik (125.052,81 euro bildu ziren kuotetan) azken urteetako zenbatekorik handienara (531.086,06 euro) pasatzen baita, jasotako zenbatekoa lau bider baino gehiago izatera pasa zelarik.

Hala ere, ziurrenik 2017ko alderdiaren hogeigarren kongresuak eta 2019ko hauteskondeek bultzatutako gorakadaren ostean, aipatutako zifrek behe-eragin zuten, alderdiko militantziak bezalaxe. 2023rako, jasotako kuoten zenbatekoa %30 jaitsi zen, eta aipatutako kongresutik alderdiaren 2022ko mendeurrenara arte, afiliatuak 10.500 izatetik 7.700 izatera pasa ziren, gutxi gorabehera.

Afiliatuen eta kargu publikoen ekarpenak urteko 150.000 eta 225.000 euro artean kokatzen dira, aldaketak egon daitezkeen arren. Hala ere, 2019an berriro nabarmendu ziren, 307.983,00 euroarekin; horrek argi uzten du urte hartako apustu ekonomikoa.

Guztira, atal honetan alderdiaren finantzaketaren %11,43 jasotzen da. Finantzaketa mota hau pribatutzat jotzen den arren, hein handi batean kargu publikoen soldatei dagokie, eta horiek zuzenean ordaintzen dira diru-kutxa publikoetatik. Horrenbestez, hainbat analistek egiten duten moduan, zeharkako finantzaketa publiko gisa har daiteke.

1.2.2. Dohaintzak, legatuak eta bestelako diru-sarrera pribatuak

Alderdiaren finantzaketaren %7,89 dohaintza edo legatuetatik datorrela dio erregistroak. Finantzaketa mota hau ohikoagoa da ibilbide handia duten alderdien kasuan. Hala eta guztiz ere, alderdi honek gehiengoak baino zenbaki zertxobait altuagoak ditu atal honetan.


Garrantzia ken ezin dakioken zenbateko bat, beraz, bestelakoak kategorian aurkitzen da. Batez beste, atal honetan jasotako diru-sarrerak finantzaketa guztiaren herena baino gehiago (%36,61) hartzen dute.

Bestelako kudeaketa-sarrerak kategoriako zenbateko esanguratsu horien atzean hainbat arrazoi egon daitezke. Lehenik, baliteke hazkunde horren zati handi bat garrantzi politiko handiko uneetan militanteen nahiz, jarraitzaileen ekarpenekin osatuta egotea, 2019an barne mailan ekarpen ekonomikoei eman zitzaizen bultzadarekin gertatu bezala. Bestalde, ezin da baztertu aipatutako igoyerako batzuk Izquierda Unidaren edo azkenaldian kide izan dituzten beste alderdi batzuen (Podemos edo Sumar) laguntzaren edo transferentzia ekonomikoen ondorio izan daitezkeenik.


Edonola ere, balantze xeheko informazioa edo barne-kontabilitatea ikusi gabe, zaila da jakitea partidak nondik datozen; argi ikus daitekeena da bai 2022an, baita 2023an ere, PCEk aurreko bost urteetan eskuratutako diru “extra” horri dagokion kantitate bera batu duela. Horrek jatorri pribatua duten eta puntualki sartzen diren finantza-iturriak dauden seinaleak ematen dizkigu.

Afiliatu, kide eta jarraitzaileen diru-sarrerak” atalean alderdiaren finantzaketaren %11,43 jasotzen da. Finantzaketa mota hau pribatutzat jotzen den arren, hein handi batean kargu publikoen soldatei dagokie, eta horiek zuzenean ordaintzen dira diru-kutxa publikoetatik

JATORRI PRIBATUKO DIRU-SARRERAK



OHIKO KUDEAKETAREN GASTUAK GUZTIRA



2. Gastuak

Kudeaketa arrunteko gastuak hainbat ataletan banatzen dira: lehenik, langileen soldata, lansari eta karga sozialak; bigarrenik, jarduera arrunteko gastuen epigrafeak, zeinak kanpo-zerbitzuak nahiz bestelako kudeaketa-kostuak barne-hartzen dituen; eta, azkenik, ibilgetuen amortizazioa erregistratzen da, aktiboen galera progresiboa kontabilitatean islatuz.

Ez dira aztertuko gastu arrunten kategoriatik kanpo gelditzen diren gastuak, finantza-gastuei edo garrantzi handirik gabeko kasuei egiten baitiete erreferentzia.

Oro har, entitatearen guztizko gastuari erreparatuz gero, ikus daiteke 13.391.095,77 eurora iristen dela zazpi urtean. Joera nabarmen da goranzkoa. Izan ere, lehen lau urteetako batez besteko balioak hartu eta azken urteetakoekin alderatuz gero, ikus daiteke azkenetan %81,23 gehiago gastatu dela. Gainera, oso adierazgarriak dira hainbat gorakada: 2019an, aurreko urteko gastuekin alderatuta, %151,34ko gorakada nabarmena egon zen (870.013 eurotik 2.186.735 eurora), eta 2022an, berriz, 2.330.501 eurotik (multzotik bigarren baliorik altuena) 3.314.342 eurora (erregistratutako baliorik altuena); %42,21eko aldaketa ekarri zuen horrek.

2.1. Soldata eta lansariak

Liberatuen soldatak eta haietatik eratorritako gastu sozialak batuta, alderdiak zenbateko osoaren laurden bat inguru gastatzen du (3.225.930,45 euro). Garrantzitsua da berriro nabarmentzea, parlamentuetan parte-hartzerik ez izatean, jardun horri dagokiona IUren kontuetan islatzen dela; 2022. urtean 124,873 liberatu zeuden erregistratuta IUn (dezimalak kontratu partzialengatik dira), eta horietatik 27,51 dira PCEkoak.

Era berean, PCEko liberatu bakoitzaren gastua (2022. urtea erreferentziazat hartuta), 28.500 euro ingurukoa dela ikus daiteke. Zenbateko horri karga sozialak kenduz gero, urteko 21.509,86 euro gelditzen dira.

Beste kategoriekin gertatzen den bezalaxe, esan daiteke 2019 urte garrantzitsua izan zela alderdiarentzat, langileen gastuak 2,24 aldiz biderkatzen direlako, eta horrenbestez, ondorioztatu daitekeelako liberatuen kopuruarekin ere gauza bera gertatu zela. Aldi berean, gorakada horretatik beheranzko joera ikus daiteke, 2023an langileen gastuak 2019an baino %18,29 baxuagoak izan baitziren.

2.2. Kanpo-zerbitzuak eta bestelako gastuak

Alderdiak hornitzaileei nahiz beren langileak ez direnei egindako ordainketak dira hauek. Hauek ere hartu ditzake barne: aholkularitza juridikoa edo kontabilitate-aholkularitza, diseinu-enkarguak edo kanpainak aurrera eramateko maketazio nahiz hedapen materialak, marketin eta komunikazio zerbitzuen kontratazioa, ekitaldi publikoetarako espazioen alokairua, edota barne mailan kudeatzen ez diren bestelako aldizkako horniketa zerbitzuak.

Alderdiak zerbitzu horietan gastatutakoa 5.394.182,12 euro izan dira guztira. Kategoria honek, beraz, esangura handia hartzen du, ekintza horiek diruaren %40 baino gehiago baitakarte. Horren haritik, ez da harritzekoa hauteskunde garaietan islatzea zenbatekorik handienak era horretako gastuetan. Beste behin ere, 2019ko kanpaina izan zen garestiena, 2.332.153 eurorekin.

Atal honekin amaitzeko, azpimarratu nahi da alderdian afiliatutako kuotetako zazpi urtetako zenbatekoak batuta ere ez direla iristen 2019ko kanpaina ordaintzera ere.

Alderdian afiliatutako kuotetako zazpi urtetako zenbatekoak batuta ere, PCE ez da iristen 2019ko kanpaina ordaintzera ere

3. Emaitzak

Jarduera arruntari daokionez, hiru urtetan bakarrik ikus daitezke balantze positiboak: 2019an, 2020an eta 2023an. Kontrara, beste lau urteetako emaitza ekonomikoak negatiboak dira, aurretik aipatutako urteetako zifrak baino zenbateko nabarmen handiagoekin. Guztira, ondorioztatu daiteke, salmentata edo aktiboen besterentzeetatik dirurik jasoko ez balu, PCEk zazpi urtean 1.292.914,03 euro galduko lituzkeela bere eguneroko jardunean. Izan ere, aipatutakoek 1.561.625 euro batu dituzte denbora-tarte horretan.


Azken hiru urteak kontuan hartzen badira, hain zuzen ere, are argiago gelditzen da alderdiak bere burua sostengatzeko duen gaitasunik eza. 2021etik 2023ra bakarrik, alderdiak 1.197.665,9 euroko galerak izan zituen, eta besterendutako ibilgetuetan 1.436.341,66 euro batu zituen.

Oro har, arruntak ez diren gastuak balantzean gehituz gero, aztertu diren zazpi urteetako jardunaren emaitza 130.519 euroko galerak dira. Galera horiek hainbat aktiboren galera hartzen dute barne, baina batik bat lursail eta eraikuntzei dagozkienak, zeinek, 2023ko memoriaren arabera, 1.813.809,06 euroko balioa duten oraindik ere.

ONDORIOAK

2017 eta 2023 arteko PCEren kontuak guztira 13.164.380,85 euro dira diru-sarrerara arruntetan (finantzaketa publikotik datozen 3.917.342,67 euro eta a priori jatorri pribatuko 9.247.038,18 euro), eta islatzen dute Estatuaren finantzaketa ezinbestekoa dela alderdiaren biziraupenerako, izan dirulaguntza zuzenen bidez jasotzen dena, izan kargu publikoen soldatetatik zeharka jasotakoa. Aldi berean, ia are garrantzi gehiago hartzen du Estatuko finantzaketak ordezkari-tza instituzional handiagoa duten alderdien kasuan. Itxuraz euren funtsen %30 baliabide publikoetatik eta beste guztia pribatuetatik badator ere, azterketa xeheago batek erakusten du ekarpen pribatuen

OHIKO JARDUERAREN EMAITZA



Bere ondarera jo ezean, PCEk galera handiekin bukatuko zituen azken ekitaldiak

ehuneko handi batek jatorri publikoa duela (bereziki altxor publikotik ordaintzen diren kuota eta dohaintzak, edo IU bezalako talde nahiz Podemos, Sumar, eta gisako koalizioen laguntzak). Modu horretan, hautes-karguetatik datorren dirua Estatuaren finantzaketa moduan sailkatuz gero, diru publikoaren ehuneko nabarmenki hazten da.

Adibidez, 2019aren kasuan, ikus daiteke afiliatuen kuotek asko egin zutela gora alderdiaren minimotik (125.052,81 euro 2018an) 531.086,06 euroko gehienekora, hauteskundeetara begira alderdiak barne-mailan egindako apustuaren

isla, eta antolaketa-egitura indartzeko helburuz egin berria zen (2017) kongresuaren isla ere. Hala eta guztiz ere, ki-deen beheranzko joerak (2017an 10.500 izatetik, 7.700 izatera pasa ziren 2022an) aurreragoko jardunean eragina izan zuen, alderdiaren beheranzko joeraren adierazle, beste behin.

Beste alde batetik, 2019an kanpo-zerbitzuetan egindako ordainketa handiek, hauteskunde kanpaina indartsuaren eskutik, agerian uzten dute hauteskunde garaiek alderdien gastuetan izan dezaketen neurrigabeko eragina, baita jarduera parlamentario gutxien duten alderdien kasuan ere.

PCErentzat, ia ordezkari-tza parlamentario propiorik gabe, ezinbestekoa da babes-mekanismoak bilatzea IUK kudeatzen duen diru publikoan

Horri gehitu behar zaio, bere ondarera jo ezean, PCEk azken ekitaldiak galera handiekin bukatuko zituela; horrek bere finantza-ereduaren hauskortasuna eta higiezin salmentek euskarri ekonomiko gisa duten garrantzia islatzen du.

Paraleloki, hauteskundeetan Izquierda Unidarekin zeharka parte-hartzea esanguratsua da. Izan ere, PCErentzat, ia ordezkari-tza parlamentario propiorik gabe, ezinbestekoa da babes-mekanismoak bilatzea IUK kudeatzen duen diru publikoan. Horrela, agerian gelditzen dira lehiaketa instituzionalaren menpe jartzen ez diren eta, horrenbestez, ahalik eta baliabide publiko gehien pilatzeagatik lehiatzen ez diren alderdiei inposatzen zaizkien zailtasun ekonomikoak.

Horrela, PCEren ikuspegi orokorra ikusiz, afiliazioen beheranzko joerek eta dirulaguntzak jasotzeko duten gaitasun ezak apurkako higiduran sakontzen dute, eta hori alderdi indartsuagoekin harremanak eraikiz eta historian zehar metatutako aktiboekin konpentsatu daiteke soilik. Horri guztiari gehitu behar zaio duela gutxi gazte-talde haustura eman dela (mugimendu sozialistara batu diren gazteak). Joera sozial-demokratarekin eta borondate iraul-

tzaile ezarekin kritiko ziren ahotsak isilaraztea leporatu zioten alderdiari.

Hori guztia esanda, azterketak arreta soilik PCE alderdian jarri arren, agerian geratzen da politika profesionalak duen inposaketa ekonomikoa, zeina ahalik eta funts publiko gehien lortzera bideratuta dagoen. Aldi berean, ezarritako bideetatik kanpoko edozein ekintza zailtzen du inposaketa horrek, eta joko instituzionalean sartzen direnen asimilazioa bultzatzen du. ●

Azterketa honen ondoren, agerian geratzen da politika profesionalak duen inposaketa ekonomikoa, zeina ahalik eta funts publiko gehien lortzera bideratuta dagoen

ERREFERENTZIAK

<https://www.gardena.eus/2024/05/09/como-se-financian-los-partidos-politicos/>

<https://transparentia.newtral.es/buscador>

<https://izquierdaunida.org/transparencia/>

<https://www.pce.es/portal-de-transparencia/>

PCE XXI. MENDEAN:

“HAIZEAK NORA, ZAPIAK HARA”
ESTRATEGIA

PCEk ehun urte baino gehiago ditu alderdi moduan; urte horietan, erreferente antifrankista izan da, baina baita Espainian monarkia berrezartzeko euskarri argi bat ere. PCEk bere historian proiektu komunistari nolako ekarpena egin dion aztertzen badugu, argi-ilunak ikusiko ditugu; ordea, azken urteetako historia aztertuz gero, argiak baino gehiago dira ilunak. Horrek ez du esan nahi PCEk IUren bidez eta Podemosen eta Sumarren integratuz jarraitu duen estrategia instituzionalaren mugak aztertzeak ezin digunik irakaspen baliotsurik utzi botere instituzionalak egun duen konfigurazioa ulertzeko, eta, horrela, ageriko muga horien bidez proiektu komunistak batek saihestu behar lituzkeen akatsak konprenitzeko. Artikulu honek horri egin nahi dio ekarpena, hain zuzen.

Espainiako Alderdi Komunita (PCE) XXI. mendean hasi zen XX. mendean izana zenaren itzala izaten. Arrasto gutxi gelditzen zen diktaduraren 40 urteetan oposizio antifrankista gidatu zuen masa-alderdi hartatik; Trantsizioan ere eragile politiko nagusia izan zen, baina ordurako onartua zuen erregimen monarkikoa, eta banderatzat hartua eurokomunismo liberal-demokrata. Edonola ere, Espainiako Estatuaren XX. mendeko historia politikoa ezin daiteke ulertu PCEren agertze ustekabekoa, goraldia eta eragin politikoaren galera aztertu gabe.

Ezin daiteke gauza bera esan XXI. mendeaz; izan ere, PCE ez da izan Espainiako panorama politikoko eragile nagusia ezta PSOEren ezkerreko indarren artean ere. Ezker Batuaren (Izquierda Unida, IU) barrenean leku subordinatua izanik iritsi zen PCE mende berrira; alderdi hori ezker eurokomunita eta postkomunistako zenbait alderdiren koalizio moduan sortu zen PCEren laguntzaz, 1986an. Egiari zor, PCEk, izandako barne-krisiak eta hauteskunde-eraginaren galera gorabehera, ondo eutsi zion bere egiturari eta militantziari, eta gaur egun mugimendu sozial eta sindikaletan parte hartzen jarraitzen du.

2010eko hamarkadan, Podemosen sorrerak PCE kolpatu zuen, haren oinarri soziala eta hauteskunde-oinarria erakarri baitzituen. Hala ere, alderdia Unidas Podemoseko espazio berriaren barruan birkokatu zen, eta eragin handi samarra izateari eutsi zion Estatuko politikan. 2016an, Alberto Garzón PCEko militanteak hartu zuen IUren koordinazioaren burutza, eta, horrekin, alderdiak Podemosekin bat egitea bultzatu zuen Garzónék. Instituzioetan, PCEk presentzia errekuperatu zuen 2020an; urte horretan Laneko ministro sartu zen Yolanda Díaz (PCEko afiliatua bera), eta Kontsumoko ministro Alberto Garzón.

Unidas Podemos koalizioa barrutik lehertu zenean, Yolanda Díazen proiektuaren alde agertu zen PCE, eta IUekin batera Sumarren sartu zen kritika handirik gabe. Alabaina, 15-M garaiaren ondoren ezkerreko koalizioen barruan gertatu zen higadura politikoaren eraginez, PCEk ordezkaritza instituzional txikiagoa ez ezik barne-leherketa bat ere izan du azken urteotan. 2023. urtearen amaieran aterata zen argitara PCEren gazte-antolakundeko kideen gehiengoak (Unión de Juventudes Comunistas de España, UJCE) alderdiarekin harremanak etetea erabaki zuela, eta kide horietako asko Mugimen-

Espainiako Estatuaren XX. mendeko historia politikoa ezin daiteke ulertu PCEren agertze ustekabekoa, goraldia eta eragin politikoaren galera aztertu gabe

du Sozialistara joan ziren ondoren, zeina zabalpen politiko eta lurralde-zabalpen etengabea baitago.

Azken puntu horrek garrantzizgabea irudi dezake, alderdi komunisten historiako beste haustura bat, askoren artean. Baina ez da horrela: ondo ilustratzen ditu PCEk azken urteetan gidari izan duen desorientazio estrategikoa eta hauteskunderen izan duen goranahaikeria. Alderdi historiko hori koalizio alderdikoietako kide txiki gisa baztertua gelditu da azken urteetan, nahiz eta beste alderdiek baino militante gehiago izan, Unidas Podemosek baino gehiago, kasu.

Halaber, azpimarratzekoa da eurokomunismoa agortu izanak eraginako desorientazio ideologikoa. Horrek PCE jarrera postkeynesiarrak izatetik hertsiki populistak izatera eraman du, hasierako Podemos haren eraginez. Horrek guztiak agerian utzi du komunismoa erreferenteen umezurtz dagoela Espainiako Estatuan. Testu honetan, PCE egoera horretara nola iritsi zen azaltzen saiatuko gara.

INDAR GALERA ETA IUREN SORRERA

PCEn azken urteetako historia ulertzeko, beharrezkoa da IUREN sorrera eta bilakaera ulertzea, lehenbizi hauteskunde-koalizio modura, eta gero alderdien federazio modura. 1986an, eta NATOn sartzeari buruzko erreferendumari “bai” erantzun izanak PSOEn ezkerrean zeuden mugimenduetan eragin zuen porrotaren ondoren, PCE gero eta higuatago zegoen botoei dagokionez, eta, hala, ideia hau inposatu zen alderdian: hauteskundeetara ez bazen ezkerreko beste alderdi batzuekin batera aurkezten, parlamentuko ordezkari guztiak galduko zituen.

Gauzak horrela, PCE IUn integratu zen; IU koalizio bat zen, alderdi komunista edo postkomunistek eta PSOEn eta PPren politiken alternatiba bat artikulatu nahi zuten mugimendu sozialek osatua –izan ere, Adolfo Suárezen UCD desegin ondoren, PSOE eta PP bihurtu ziren Espainiako sistema politikoko alderdi nagusi-. 1990eko hamarkadan, Julio Anguita liderraren pean, PCE funtsezko eragilea izan zen IU garatzeko; IUK 1996an lortu zituen hauteskunde-emaitez onenak, Kongresuan 21 diputatu lortuta (horren baliokidea litzateke, gutxi gorabehera, gaur egun Sumar, Podemos eta ezkerreko gainerako federazioen boto guztien batura).

Anguitak, 1988ren eta 1998ren artean PCEn idazkari nagusi izandakoak, “bi ur-bazterren politika” izenekoa bultzatu zuen. Haren helburua zen IUREN ekintza politikoa ez subordinatzea ez IURI, ez PSOeri eta ezta PPri ere, eta ezker “autonomo eta koherentea” aldarrikatzea. Teoria horren arabera, PCE eta haren IUKo aliatuak ziren Espainiako panorama politikoko ezkerreko ur-bazterreko eragile bakarrak. PSOE, aldiz, eskuineko ertzean zegoen, proiektu erregresibo bat baitzekarren balioei, eskubide sozialei eta askatasun demokratikoei dagokienez.

Hortaz, Santiago Carrilloren ikuspegiarekin hautsi nahi zen, zeinak trantsizioko PSOE aliatutzat hartzen baitzuen frankismo ondorengo Espainiako Estatuko aurrerabide demokratikoan. Ordea, Trantsizioak aurrera egin eta PSOEek onartu ondoren Espainia NATOn sartzea, Maastrichteko ituna eta Espainia EBn sartzearen ondoriozko desindustrializazioa, Anguitaren IUK argi markatu behar zituen distantziak Felipe Gonzálezen PSOerek.

Anguitak gidaturiko lehenbiziko IU haren helburua izan zen alderdi hori bipartidismoaren oposizio gisa aurkeztea eta garai neoliberalako politiken kontra agertzea. Kontra egiten zien politiken artean zeuden, besteak beste, finantza-sektorea

sustatzeko neurriak, industria-birmoldaketa, prekarietatea bultzatzen zuten lan-erreformak, soldatei eusteak berekin zekarren joera deflazionista eta pribatizazioen bidez defizit publikoa murriztea, – horrek eurora sartzeko joera markatzen zuen–.


Alabaina, praktikan, IU ez zen iritsi era irmo eta baldintzagabea PSOerek apurtzera, haren laguntza behar baitzuen udaletan gobernatzeko. 1995eko udal hauteskundeetan, IUK botoen %11,6 eskuratu zuen, eta, horri esker, zenbait federaziok

Gobernu-itunak egin zituzten PSOerek udalugaritan, bereziki Madril hegoaldean eta Andaluzian. Horrenbestez, nagusiki Espainiako Diputatuen Kongresura mugatzen zen bipartidismoarekiko oposizio politika; izan ere, han, IUK botere-kargurik lortu ezin zuenez, aukera zuen udaletan eta autonomia-erkidegoetan baino erretorika erradikalagoa izateko PSOEn aurrean.

Gainera, José María Aznar Gobernura iritsi zenean, PCEk, 90eko hamarkadaren bukaeran Fran-

cisco Frutos buru zuela, konplexurik gabe eskaini zion PSOeri hauteskunde-koalizio handi bat sortzea, bere burua “eskuinari aurre egiteko premian” justifikatuz. 1996ko emaitzak, IUK inoiz izandako emaitzarik onenak izanagatik, eskastzat hartu zituen alderdi-federazioko kupulak; izan ere, PSOE-rekin zuen aurrez aurreko oposizioaren eraginez, urrundu egin ziren Aznarren PPri aurre egitearren bi alderdi horiek batzearen alde zeuden ezkerreko boto-emaile potentzialak.

PCE alderdi historiko hori koalizio alderdikoietako kide txiki gisa baztertua gelditu da azken urteetan, nahiz eta beste alderdiek baino militante gehiago izan, Unidas Podemosek baino gehiago, kasu



Anguitak gidaturiko lehenbiziko IU haren helburua izan zen alderdi hori bipartidismoaren oposizio gisa aurkeztea eta garai neoliberaleko politiken kontra agertzea

2000KO HAMARKADA: KRISIA PSOEREN ITZALEAN

1998an, Julio Anguitak PCEn idazkaritza nagusia utzi zuen, eta Francisco Frutosek hartu zuen haren lekua 2009ra arte. Garai hartan, IUren hauteskunde-babesa jaitsi zen, 1996an 21 diputatu izatetik, 2004an 5 izatera pasatu baitzen –Zapatero Gobernuko presidente izatera iritsi zen unea zen hura–. Oposizioko jarrera hausturazaleen eta PSOEtik gertuen zeudenen arteko zatiketak markatu zuen garai hura; hain justu, 2004ko hauteskundeetan eragin nabarmena izan zuten 11-Mko atentatuek, eta, arlo sozioekonomikoari dagokionez, higiezinaren burbuilaren bukaera zen Espainiako Estatuan, zeinak oparotasun-sentsazio faltsua sortzen baitzuen.

Gainera, Zapateroren PSOE askatasun zibilei loturiko kausen buru izan zen, hala nola ezkontza homosexualaren onespenera, eta horrek, goraldi ekonomikoko garai hartan, eremu txikia uzten zion IUri haren diskurtso erreformista erradikalena ateratzeko. 2003an Irakeko gerraren kontrako jarrera hartu zuten mugimendu sozial eta sindikalekin nolabaiteko konpromisoa eduki izanak salbatu zituen PCE eta IU; gertakari haiek inflexio-puntua izan ziren Espainiako ezkerren mobilizazioan.

2005eko ekainaren 1ean, PCEn XVII. kongresuan eztabaidagai izan zuten Julio Anguita idazkari nagusi ohiaren dokumentu bat, alderdia berro-

satzeko deia egiten zuena. “Refundar, reconstruir el PCE” izeneko artikulua (“Birfundatu, berreraiki PCE”) antolakuntza-eredua berrikusi eta demokratikoago eta parte-hartzaileago egitea proposatzen zuen, militanteei aukera emanez inplikazio handiagoa izateko erabakietan. Era berean, nabarmentzen zuen premiazkoa zela langile-klasearen egiazko kezkekin konektatu eta haren eguneroko problemei helduko zien diskurtso koherente bat artikulatzea, baina alde batera utzi behar zirela dogmatismoak edo eskema politiko zaharkituak.

Testuan, halaber, azpimarra jarri zuen kapitalismoari eta politika neoliberaleri alternatiba argia eskainiko zien proiektu politiko solido bat berre-raikitzeko premian. Horretarako, Anguitak prestatuntza ideologikoaren, ekintza-batasunaren eta beste mugimendu sozial eta indar progresista batzuekiko elkarlanaren garrantzia nabarmentzen zuen: “PCEn birfundazioak ez du esan nahi besterik gabe siglak aldatu eta azaleko egokitzapen bat egin behar dugunik; kontrara, alderdia birdefinitzeko prozesu sakon bat egin beharra dago justizia sozialaren eta sistemaren eraldaketaren aldeko borrokan eragin handia izango duen eragile politiko bihurtzera bidean”.

PCEn barreneko kritika horien emaitza gisara, 2008an, Estatu Batuetan Lehman Brothersen hondoratzarekin eta munduko krisi ekonomikoa hasiarekin batera, Julio Anguita eta haren hurbileko militante batzuek IU birfundatzera dei egin zuten, hauteskundeetan eta politikoki amortizatua zegoen proiektu politikoa berpiztu nahian.

2010EKO HAMARKADA: KRISIA, M-15 ETA PODEMOSEN AGERPENA

2009an, José Luis Centellak hartu zuen PCEn idazkaritza nagusia, eta alderdia barnetik berre-raikitzeko eta IUren barruan berak zuen zeregina indartzeko prozesu bat gidatu zuen. Horiek munduko krisi ekonomikoaren eztandaren urteak izan ziren, eta PCEk gidatutako espazioaren berrantolaketa ekarri zuten.

IUren IX. Batzar Federalean, 2008ko azaroan, erakundearen etorkizunari buruzko hainbat proposamen eztabaidatu ziren. Koalizioaren ezkerreko ildoak ildo antikapitalista eta subiranista defendatu zuen; horrekin batera, PSOErekin itunak haustea aldeztu zuen, langileen demokrazia bultzatzea eta “sozialismoaren, Espainiako Hirugarren Errepublikaren eta Espainiar Estatuko herrien autode-terminazioaren” alde borrokatzea. Hala ere, PCEn proposamenak lortu zuen babes handiena; haren apustua IU errepublikanoa, federala eta alternati-

boa zen, izaera antikapitalista sakona eta ekonomiarren kontrol publiko zabala izango zituena, baina merkatu ekonomia kapitalistaren barruan. Horrela, beren proiektu estrategikoa izendatzeko, “XXI. mendeko sozialismoa” terminoa erabili zuten, chavismoak Venezuelan izandako gorakadak ospetsu eginikoa, hain zuzen.

Batzarrak, halaber, IUren birfundazio prozesuari hasiera eman zion, zenbait barne-aldaketa-rekin: militantziaren parte-hartze handiagoa, barne gatazken konponbidea eta antolaketa-egituraren sinplifikazioa, besteak beste. Aldi berean, neoliberalismoaren aurkako beste indar politiko, sindikal eta sozial batzuekin bateratzeko prozesua bultzatu zen; horrela, “XXI. mendeko sozialismoan” oinarritutako alternatiba politiko bat defendatzeko gai izango zen fronte zabal bat eraikitzeko eta egungo esparru konstituzionala gainditu nahi zen, baita Estatuan prozesu konstituziogile bat hasi ere.

Hala ere, proiektuak ezkerreko alderdi eta mugimenduen siglen batuketan ainguratua jarraitzen zuen, eta ideia hori laster inplosionatu zen, krisi ekonomikoaren hastapenean gizarte mugimendu berri bat agertu izanaren ondorioz, apartidista eta identifikazio ideologiko lausokoa: M-15. M-15 mugimendua 2011ko maiatzean sortu zen, krisi ekonomikoaren eta Espainiako sistema politikoarekiko nahigabearen adierazpen gisa. Hasieran, ezaugarri izan zituen alderdi tradizionaletik independentzia eta egitura politiko demokratiko-liberal klasikoe-kiko gaitzespena.

Hasieratik, IUk eta PCEk bat egin zuten M-15aren aldarrikapenekin; izan ere, mugimenduak sistema politikoari, finantzarioari eta ekonomikoari egindako kritika asko bat zetozen alderdi horiek historikoki defendatutako jarrerekin. Alderdi-bitasunaren, ustelkeriaren eta austeritate-politiken salaketak bat egiten zuen IUren eta PCEn diskurtsoarekin eta, nolabait, alderdi horiek mugimenduaren ideologiarekin identifikatu ziren.

Hala ere, kolaborazio formalaren oztopo izan ziren M-15aren izaera horizontal eta asanblearioa eta mugimendu horrek alderdi politikoetik lotura arbuizatzea. IUko eta PCEko militante batzuek modu aktiboan parte hartu zuten kanpaldietan eta batzarretan, baina mugimenduko kideak, oro har, uzkur agertu zen erakunde politiko finkatu eta zentralizatuen eraginarekiko, hala nola PCEn eraginarekiko, uste baitzuten arbuizatzen zuten sistemaren parte zirela erakunde politiko horiek.

Bestalde, IUren eta PCEn barruan eztabaida bat egon zen M-15aren aurreko jarreraren inguruan. Sektore batzuek inplikazio handiagoaren

eta hurbilketa aktiboagoaren alde egiten zuten; beste batzuek, berriz, uste zuten mugimenduaren independentzia errespetatu behar zutela, eta instrumentalizazio saiakera oro saihestu. Ildo horretan, garai hartan IUko buruzagiek –Cayo Lara koordinatzaile nagusiak, besteak beste– babesa adierazi zioten mugimenduari, baina beti distantzia jakin batetik.

Hala ere, 2011ko hauteskundeetan, eta Mariano Rajoyren PPk eskuratutako gehiengo absolutua gorabehera, IUk XXI. mendeko emaitzarik onenak lortu zituen, ia milioi eta erdi boto emailerekin eta Kongresuan 11 eserlekurekin. Larak berak honela definitu zuen lorpena: “berri on bat pobreen etxean”. Hala ere, poztasun horrek ez zuen eragin handirik izan PPk legeegintzaldi horretan Troikaren aginduek babesturik (IMF, ECB eta Europako Batzordea) abiarazitako eskubide politiko eta ekonomikoen aurkako erasoaldia geldiarazteko.

Hala eta guztiz ere, urte horietan, Rajoyren Gobernuaren aurkako oposizioan, Alberto Garzón IUko politikari gaztea nabarmendu zen Kongresuan. Ekonomialari gazteak laster markatu zuen bai IUren bai PCEn norabide diskurtsibo eta politiko. Garzónen gorakada gertatu zen unean, krisi ekonomikoaren urte gogorrenetan alegia, politika gero eta gehiago ari zen espektakulu bihurtzen.

IUren IX. Batzar Federalean, PCEn proposamenak lortu zuen babes handiena; horrek IU errepublikano, federal eta alternatiboaren aldeko apustua egin zuen, izaera antikapitalista sakon eta ekonomiaren kontrol publiko zabalarekin, baina merkatu ekonomia kapitalistaren barruan

IUren eta PCEren barruan eztabaida bat egon zen M-15aren aurreko jarreraren inguruan. Sektore batzuek inplikazio handiagoaren eta hurbilketa aktiboagoaren alde egiten zuten; beste batzuek, berriz, uste zuten mugimenduaren independentzia errespetatu behar zutela



Urte haietan, kaleko mobilizazioak gero eta ugariagoak ziren, eta telebistako solasaldi politikoek nahigabe sozial hori jaso zuten. Testuinguru horretan, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Zientzia Politikoko irakasle batzuek –neurri handi batean IUren espaziotik etorriak– egoeraren analisi egokia egin eta alderdi-mugimendu likido berri bat abiarazi zuen, telebistako solasaldietara zuzendua; haietan, ezagutzera eman zen Pablo Iglesias *outsiderra*, eta horrela jaio zen Podemos.

Alderdi morea 2014an sartu zen Espainiako panorama politikoan; haien diskurtsoak berri-tzailea izan nahi zuen, eta krisi ekonomikoaren eta M-15aren nahigabe soziala bideratzeko gaitasuna izan. Urte hartako Europako hauteskundeetan izan zuen hazkunde eta arrakasta azkarra erronka handia izan ziren IUrentzat, zeina ordura arte PSOEren ezkerreko erreferente nagusi izan baitzen. Horrez gain, Podemos sortu berriaren liderrek mespretxu teoriko zein diskurtsiboz jarduten zuten IUREKIKO.

Íñigo Errejónekin bat zetorren sektoreak Ernesto Laclau eta Chantal Moufferen postulatueta oinarritutako tesi populistak babesten zituen, zeinak Espainiako langile-mugimendua eta mugimendu errepublikanoa sinbolo historiko eta diskurtsiboe-tatik erabat bereiztearen alde egiten zuen. Pablo Iglesiasen berak ere jarrera hori hartu zuen lehen urte haietan, eta *Público* egunkarian egindako elkarrizketa batean, IURI esaldi ospetsu hau bota zion: “Egos zaitez izar gorritz eta bestelakoez betetako zure saltsan, baina ez zaitez hurbildu, zuek baitzarete, hain zuzen ere, herrialde honetako al-daketa ezaren erantzuleak”.

Baina Konplutentseko buruzagi-taldeak ez zuen egitura militanterik, eta lehen urteetan Anticapitalistas alderdiaren azpiegitura eta koadroekin moldatu baziren ere, ez zen nahikoa 2015eko udale-tako eta autonomia-erkidegoetako hauteskundeetara aurkezteko erronkari heltzeko. Beraz, tokiko itunak egin ziren IUko eta PCEko sektoreekin eta, horri esker, udal handiak konkistatu ahal izan zituzten, besteak beste, Madrilgoa. Azken horretan, hauteskunde-koalizioan IUko kide gehienak ez egon arren, udal Gobernuan haren orbitako ki-deak sartu zituen. Horren adibide da Carlos Sánchez Mato, IUko ekonomialari aipagarria izatetik Ekonomiako eta Ogasuneko zinegotzia izatera pa-satu zena.

Udal hauteskundeetako itunak eta desadostasunak are gehiago handitu ziren Espainiako hau-teskunde orokorretan. Podemos eta IU bereizita aurkeztu ziren, eta bien artean sei milioi boto lortu

Politikoki, 2015-2016 urteetan hainbat gertakarik agerian utzi zituzten PCEk eta IUk defendatzen zituzten hauteskunde-eraldaketaren muga politikoak. Muga horiek EBko austeritatearekin zuten harremana

zituzten, PSOEk baino ia milioi erdi gehiago. Tes-tuinguru horretan, IUk barne-krisia izan zuen, Ca-yo Lara koordinatzaile nagusiaren dimisioa ema-tearekin eta Alberto Garzón 2016an buruzagitzara iristearekin batera. Azken horrek Podemosekin bat egitearen alde egin zuen ezkerrek Parlamentuan zuen presentzia indartzeko. Izan ere, Rajoyren PPK gutxiengoa zuenez eta Gobernua osatzeko gai ez zenez, 2016an berriz egingo ziren hauteskundeak.

Bien bitartean, Podemos barne-leherketa iza-ten ari zen, eta Iglesiasen postulatuetatik gertuen zegoen lerroak Garzónen IU berriarekin batera-tzearen alde egin zuen. Horren ondorioz, PCEko eta IUko militanteek hauteskundeetan PSOERI *sor-pasoz* irabazteko asmoa izan zuten urte haietan. Baina helburu hori ez zen lortu; izan ere, 2016an, bi alderdien artean –Unidas Podemos koalizioan bat eginda– ia milioi bat boto gutxiago eskuratu zuten bi urte lehenago bereizirik lortu zutena baino.

Politikoki, urte horietan hainbat gertakarik agerian utzi zituzten PCEk eta IUk defendatzen zituzten hauteskunde-eraldaketaren muga politi-koak. Muga horiek EBko austeritatearekin zuten harremana. Alde batetik, 2015ean Greziako Gober-nura iritsi zen IUren Greziako alderdi homologoa, Syriza. Alexis Tsipras buru zuen eta Podemosen miresmena jaso zuen koalizio hori IUren formu-laren erreplika izan zen: ezkerreko alderdi ohien eta alderdi postkomunisten arteko konbergentzia, hauteskunde-koalizio bihurtua. Austeritatearen aurkako programa argiarekin, Syrizak, austerita-te-politikak geldiarazteko ahaleginean Troikako instituzioekin izan zuen talkaren bidez, gainerako alderdi politikoen norabidea markatu zuen.

Puntu gorena 2015eko Greziako erreferendu-marekin batera iritsi zen, uztailaren Sean. Troikak finantza-erreskate berri bat nahi zuen murrizketa sozial gehiagoren truke; Tsiprasen Gobernuak ez zuen onartu, eta posizionamendu horretan herri-tarren babesa lortzea zen kontsultaren helburua. Ezetzaren garaipenak –botoen % 61,3rekin– izugarrizko ilusioa sortu zuen IUren, PCEren eta Podemosen sektoreetan. Hala ere, handik egun gutxira, Tsiprasek Grezia hirugarren aldiz erreskatatzea onartu zuen erreferendumean bozkatutakoa baino austeritate handiagoa zekarten baldintza batzuen truke. Horrek, PCEren eta IUren baitan eztabaida eta aukeratu beharra planteatzetik urrun, ez zuen aldatu instituzioetara iristeko estrategia berean murgilduta zeuden alderdi horien norabide politikoa –nahiz eta estrategia horrek bere mugak erakutsi berri izan Grezian–.

Gainera, nahiz eta 90eko hamarkadan Julio Anguitaren IU izan Maastrichteko Itunak eta euroan sartzeak Espainiako Estatuan eskubide sozial eta politikoen galera ekarriko zutela salatu zuen indar politikoa bakarrenetakoa, alderdi hori ez zen inoiz gai izan azterketa hori azken ondorioetara arte eramango zuen erantzun politikorik emateko. Izan ere, Alberto Garzón, EBko arkitekturaren mugen aditua bera, sutsuki mintzatu zen hainbat aldiz 2015eko eta 2016ko hauteskundeetako kanpainan Espainian euroa mantentzearen eta EB barrutik aldatzearen aukeraren alde, ezkerreko indarren arteko korrelazio handiagoa lortzera bidean.

Hala ere, kontraesan horrek berak eztanda egin zien Madrilgo Udaleko Ekonomiako eta Ogasuneko zinegotziekin. Carlos Sánchez Mato-ren eta PPren Gobernu zentralaren arteko talka Aurrekontuen Egonkortasunerako Legearen aplikazioaren inguruan gertatu zen. Sánchez Matok, Manuela Carmenaren udal Gobernuaren peko politika ekonomikoaren arduradunak, PPren Ogasun Ministerioari aurre egin zion “gastu-araua” zela eta, udalaren superabitaren erabilera mugatzen baitzuen arau horrek. Zerbitzu publikoetan murrizketak saihesteko alternatiba batzuk defendatu zituen, baina ez zegoenez adostasunik Gobernu zentralarekin, aurrekontuetan doikuntzak egin behar izan ziren, eta zinegotziaren dimisioa behartu zuen Carmenak berak.

Gatazka horrek ondo islatu zuen 2015eko hauteskundeen ondoren udal aurrerakoien artean sortutako talka, eta baita PPren Gobernuak gastua kontrolatzeko ezarritako politikak ere. Gainera, agerian utzi zuen udal autonomiak nolako mugak dituen legeria ekonomiko nazionalaren markoan,

2020an Unidas Podemosek Gobernuan sartzea lortu zuen, M-15aren ondorengo urteetan marraztutako estrategia politikoa bere mugara iristen ari zenean

eta nolako zailtasunak Estatuak eta EBk ezarritako parametro fiskalen barruan politika alternatiboak ezartzeko.

Hauteskundeetara bideratutako estrategia horrek eta barne-tentsioek agerian utzitako mugek higadura ekarri zieten arren, IUko eta PCEko buruzagiek nolabaiteko lasaitasuna aurkitu zuten 2018an, Mariano Rajoy eta PP –etengabeko ustelkeria kasuek inguratua– Moncloatik kanporatzea lortu zutenean. Paradoxikoki, 2020an Unidas Podemosek Gobernuan sartzea lortu zuen, M-15aren ondorengo urteetan marraztutako estrategia politikoa bere mugara iristen ari zenean. Baina urte hartako urtarrilean Podemosek koalizio Gobernua eratu zuen PSOErekin, zeinak, Bigarren Errepublikatik lehen aldiz, PCEko eta haren espektro politikoko ministroak biltzen baitzituen.

AKTUALITATEA: KOALIZIO GOBERNUA, SUMAR ETA GAZTEEN HAUSTURA

Unidas Podemos koalizioan sartu zenetik IU, Garzón buru zuen alderdiak garrantzi handia izan zuen PSOErekin Gobernu akordioa lortzeko negoziazioetan. Garzónnek, PCEko kide eta IUko koordinatzaile federala izanik, Kontsumo Ministerioaren ardura hartu zuen. Hala ere, ministerio horren zuzeneko kudeaketa online jokoen nolabaiteko erregulaziora eta kontsumo iraunkorraren sustapenera mugatu zen. Bestalde, Enrique Santiagok, PCEko idazkari nagusiak, Agenda 2030erako estatu idazkariaren kargua hartu zuen 2021etik 2022ra bitartean, zeinak lotura zuzena baitzuen lehenbizi Pablo Iglesiasen eta gero Ione Belarraren esku geratutako ministerioarekin.

Koalizio-Gobernuaren lehen agintaldi horretan, IUk eta PCEk aktiboki babestu zituzten Gobernuaren ekimenak funtsezko arloetan, hala nola lan-erreformari, lanbidearteko gutxieneko soldataren igoerari



eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren ezarpenari loturikoetan. Era berean, rol aipagarria izan zuten Covid-19aren pandemiak eragindako krisiari erantzuteari dagokionez, esaterako, Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espedienteen bidez soldaten estatilizazioa babestuz.

Hala ere, koalizio-Gobernuak “historikotzat” saldutako neurri sozial askok nahi baino askoz eragin txikiagoa izan dute. Azken urteotan, gutxieneko soldata inflazioa baino ehuneko txikiagoan igo da beti eta, beraz, pobretu egin da langile-klasea. Gizarte Zerbitzueta Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkar-teak egindako azterlan baten arabera, pobrezia-atalsearen azpian bizi diren biztanleen %12,2ra baino ez da iristen Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera, neurria ezarri zenetik lau urte baino gehiago igaro ondoren. Azterlan horren arabera, oztopo burokratikoak dira prestazio hori jasotzeko lehen eragozpena.

Azkenik, aipatzekoa da nolako garaipen kutsuz iragarri zen Yolanda Díazek itundutako lan-erreforma berria. Díazek iragan sindikalista du, eta PCEren eta egungo idazkari nagusiarekin hurbilekoa da. Erreforma hori PPk 2012an –krisi garaian– egindako erreforma atzerakoia gaitzetzeko neurri gisa sal-

du zen. Hala ere, eutsi egin zien Mariano Rajoyren PPk onartutako lan-erreformaren funtsezko aldeei. Hitzarmenen Hari esker, hitzarmenek aurreraeragina izatea eta enpresaren gainetik lehentasuna sektoreko hitzarmenek izatea berreskuratu zen, baina mantendu egin ziren llangileak kaleratzeko malgutetasuna eta kalte-ordainak.

PCEko egungo idazkari nagusia funtsezko eragilea izan zen Unidas Podemosen espazioaren desegitean eta Sumarren sorreran

Sigla batzuk historikoak izan daitezke, baina Alderdi Komunista eraikitzeke proiektuak ez ditu siglak hartzen aintzat, proiektua baizik. PCEn proiekturik ez egoteak sortzen du egungo PCEko eliteen izaera seinalatzeke beharra



Espainiako Estatuaren botere egituran eta aberastasunaren banaketan aldaketa handirik egiteko balio ez zuten erreforma batzuen ondoren, Gobernuaren hauteskunde-aurreikuspenek behera egin zuten. Yolanda Díaz eta Enrique Santiagoren gertuko buruzagi askok, une horretan, dagoeneko amortizatutako bazkidetzat hartu zuten Podemos; ondorioz, handik askatu edo hura bigarren mailako rol baten mende jarzea zegokien. Santiagok berak egin zion aurre Irene Monterok zuzendutako Berdintasun Ministerioari, “Soilik bai da bai” legeak omen zituen akats juridikoak tarteko. Gainera, PCEko egungo idazkari nagusia funtsezko eragilea izan zen Unidas Podemosen espazioaren desegitean eta Sumarren sorreran. Izan ere, Santiagok ziurtatu zuen nolabait leialak izango zirela bere alderdiko eta IUko sektore kritikoenak, zeinak ez baitzeuden prest beren nortasuna desegiteko Lan ministroaren irudiaren baitan eta proiektu nabarmen pertsonalista berri batean.

PCE lurralde-egitura handiena zuen erakundeetako bat zenez, plataforma hedatzea eta Sumar PSOEn ezkerreko indar nagusi gisa sendotzea erraztu zuen, eta, ondorioz, funtsezko posizioa eskuratu zuen Sumarren barruan. Izan ere, azken bi Gobernu hauetan –Unidas Podemosen eta Sumarren birtartez egindako koalizioetan– proiektuak gauatzeko oinarri militante sendoa izan da PCEn ekarpen nagusia, bestela ez baitzen proiektu horiek gauatzeko modurik egongo. Orain, Sumarrek ere amortizatuta dagoela dirudien honetan, IUK –gaur egun Antonio Maíllo du buru– ezkerreko alderdien elkartzetako bat sortzeko deia egiten du, non alderdien autonomia errespetatuko den; badirudi neurritz kanpoko ilusioak egiten dituztela etengabe, geratzen diren botere instituzionalaren kuota txikiak salbatzeko asmoz.

Baina zehaztasun ideologiko eta estrategiko ezak, bai eta hauteskundeak ororen gainetik lehenesteko estrategiak agerian utzitako mugek ere, baldintzak sortu zituzten PCEko gazteek alderdiaren aparatua rekin hausteko. 2023ko abenduan, ezohiko kongresu baten ondoren, Espainiako Gazte Komunisten Batasuneko militante gehienak PCEtik bereizi, eta Gazte Komunisten Batasuna (UJC) izeneko erakunde independente berri bat eratzea erabaki zuten. Militante horiek alderdiarekin hautsi zuten, azken urteetan agerian geratu baitzen ezinezkoa zela alderdiak egindako uko eta topatutako muga guztiei aurre egitea Estatuko instituzioetan integratutako, eta, are, Espainiako Estatu postfrankista edo 78ko erregimena eraikitzeke giltzarri izan zen elite burokratikoaren egituraren pean.

Gerora, PCErekin hautsi zuten gazte militante gehienak Mugimendu Sozialista sortu berrian sar-

tu ziren. Erantzun modura, PCEk alderdi historiko bat hausteko barne-konplot bat leporatu zien gazteei. Baina haustura ez da militante gazte batzuen mugimendu makiaveliko batzuen arrazoia; aldis, PCEk berak hartutako norabidearekiko nahigabetik sortu zen. Izan ere, hausturarako arrazoi nagusia izan zen ez dagoela inolako proiekturik –ez komunista, ez bestelakorik– Espainiako Estatuak, EBk edo NATOk gaur egun ezarritako ordena apurtzen duenik.

Sigla batzuk historikoak izan daitezke, baina Alderdi Komunista eraikitzeke proiektuak ez ditu siglak hartzen aintzat, proiektua baizik. PCEn proiekturik ez egoteak sortzen du egungo PCEko eliteen izaera seinalatzeke beharra, nahiz eta horregatik ez diogun utzi behar komunismoaren proiektuagatik PCEn bizitza eman zuten militante komunista guztien ondarea jasotzeari. Paradoxikoa dirudien arren, gaur egun langile horiei egin dakiekeen omenaldirik onena langile klasearen indar independentea gartzetza da, PCE bihurtu den horretatik urrun, hau da, Estatuko aparatuetan integratutako aparatatu burokratiko izatetik urrun. Azken batean, komunistak proiektu bati zaizkio leialak, ez sigla batzuei, sigla horiek edozein direla ere. ●

BIBLIOGRAFIA

Martín Ramos, J. L. (2021). *Historia del PCE*. Los Libros de la Catarata.

Andrade, J. (2015). *El PCE y el PSOE en (la) transición: La evolución ideológica de la izquierda durante el proceso de cambio político*. Akal.

Garzón, A. (2024). *Por qué soy comunista*. Ediciones Península.


Castaño, P. (Coord.). (2019). *De las calles a las urnas: Nuevos partidos de izquierda en la Europa de la austeridad*. Akal.

Alonso, R. (2020). *Las «dos orillas». La deslegitimación del PSOE en el discurso comunista (1988-1996)*. Historia Contemporánea, 73, 83-103.

Anguita, J. (2019). *Refundar, reconstruir el PCE*. Profesionales PCM.

Partido Comunista de España. (2008). *Propuesta de documento de unidad de la izquierda*. Partido Comunista de España.

IRITZIA



Espainiako alderdi komunista, hasi eta... buka?

Testua — **Dani Askuntze**

Irudia — **Manubeltz**

Urriko bultzadaren ondoren, Espainiako Alderdi Komunista (PCE) jaio zenerako, beheraldi iraultzaile betean zegoen bai Errusia, bai mundu osoa. Espainiaren kasuan, gainera, klandestinitatean jaio zen, Primo de Riverak bultzatutako jazarpenaren ondorioz. Alderdiaren fundazioa bera Internazional Komunistak dekretuz agindu behar izan zuen, au-

rretiaz existitzen ziren bi talde komunista fusionatzearen bitartez; horrek argi islatzen du alderdiaren ahuldade teoriko eta praktiko handia –ahuldade horrek haren garapena baldintzatu zuen gerora-. Ondorioz, jarraian etorri zen fasea, alderdia benetan eraikitzearena, motela eta oztopoz betea izan zen, eta ezaugarri hauek izan zituen: lerro argirik

ez izatea, barne krisiak, sektarismoa, eta influentzia txikia tradizio sozialista eta CNTri loturiko tradizio indartsuen aldean.

II. Errepublika aukeraz beteriko garaia izan zen, non klase borroka areagotu egin baitzen. Hala ere, garai hartan ez zegoen masen aspirazioen eta nahigabeen arteko kontraesana baliatzeko gai zen behar bezalako alderdirik. Horren adibide da PCEk oso garrantzi txikia izan zuela masa-borroken mugarrietan, hala nola 1934ko urriko matxinada proletarioan, 1936an presoak askatzean, edo uztailleko kolpe militarra geldiaraztean. Hondoan, etengabe-ko bidegurutze teoriko eta estrategiko bat zegoen, alderdiaren praktika osoa baldintzatu zuena: Espainiako kapitalismoaren garapen fasearen karakterizazioa, bai eta –haren ondorioz– egiteke zegoen iraultzarena ere. Marxismoaren garapen teoriko propiorik egin ez zenez, ezin izan zitzaien behar bezala heldu aipaturiko funtsezko auzi horiei. Hala, azkenean erantzun zuten egiteke dagoen iraultza hertsiki demokratikoa izango zela, eta ez sozialista. Horretarako eman ziren arrazoi ofizialak: Espainiaren atzerapen ekonomiko eta sozial handia, proletariotzaren ahuldadea eta nazioarteko egoera. Lehen arrazoiari ñabardura ugari egin dakiok; hirugarrena sobietarren kanpo politikako interesei egotz dakiok; baina bigarrena justifikaezina da guztiz. Gero eta erradikalagoak ziren masek iraultzarako

Gero eta erradikalagoak ziren masek iraultzarako indarra, ekimena eta bat-batekotasuna erakutsi zuten, maila handian gainera; horren aurrean, baina, ez zegoen lehen lerroan jartzeko gai zen alderdirik. Horixe da Espainiako iraultzaren drama

Militantzia foku ere izan zen, bai eta disidentzia foku ere, hala alderdiaren barruan nola kanpoan, gaur egunera arte

indarra, ekimena eta bat-batekotasuna erakutsi zuten, maila handian gainera; horren aurrean, baina, ez zegoen lehen lerroan jartzeko gai zen alderdirik. Horixe da Espainiako iraultzaren drama.

Hain zuzen ere, fronte popularraren aldeko hautua egin ondoren hasi zen PCE garrantzia hartzen; hala ere, alderdia ez zen benetako indar bihurtu gerra zibil betean egon arte. Eskematismo etapista eta interklasistarekin bat, programa eta rol burgesa onartu zituen, batzuetan errepublikanoen mende, eta besteetan de facto haien tokia hartuta. Iraultzaren krisi betean, errepublika faxismoaren eta iraultzaren artean harrapatuta zegoela, PCEk desagertuta egoteari utzi zion eta ordenaren agente aktibo eta kontziente gisa agertu zen, klase borrokaren tokiko historiaren momentu biziki erabakigarri batean. “Gerra edo iraultza” hautu faltsuaren bitartez, gidaritza militar garrantzitsua gauzatu zuen, baina ez alderdi iraultzaile baten diziplinapean, baizik eta botere burgesaren euskarri gisa, botere hori desegiten ari zen une batean. Gerra galdu ondoren, PCEren militantzia gerrilla-erresistentzia heroiko baten protagonista izan zen, baina amaiera tristea izan zuten. Izan ere, borroka armatuaren likidazioa borroka ideologikoaren likidazio ere bihurtu zen arian-arian; Fronte Popularrean, Batasun Nazionalen, eta azkenik Adiskidetze Nazionalen, behin betiko egin zitzaion uko iraultza sozialistari.

Aldi berean, baldintza ekonomiko, sozial eta politiko berrien epeletan, alderdiaren posizioa indartu egin zen frankismoaren aurka hobekien antolatuta zegoen eta indartsuena zen aukera gisa –nahiz eta bakarra ez izan-. Eta, militantzia foku ere izan zen, bai eta disidentzia foku ere, hala alderdiaren barruan nola kanpoan, gaur egunera arte. Trantsizioan, langile mugimendua diziplinatzeko bere helburua beteta, alderdiak bere burua suntsitu zuen azkenerako, posible ziren aldarri guztiei uko egin ondoren, demokrazia berrian sufrikario luze baten bitartez. Gaur, ziklo bat itxi eta beste bat irekitzen da Espainiako komunismoan: PCE alderdiaren hondarrak gerra inperialistaren Gobernuan parte hartzen ari dira eta, aldi berean, gazteen belaunaldi berri bat bere bidea egiten hasi da, pauso irmoz. ●

Argitalpena
2025KO MARTXOA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa eta
diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Licencia


arteka